

# ARRASATE

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko ekainaren 6a / 632. zenbakia

## 'ARRASATE, 1936 BELAUNALDI ETENA'

Industria iraultzatik espainiako gerrara arteko  
gertaera latzen gaineko liburua




ORAIN ETA HEMEN: ZABALETAKO LANAK/7 • KIROLA: DEBAGOIENeko III. TRIATLOIA/11

AZALA: OKTUBRE TALDEA

**GREMIOEN GIDA/13**





# UDALBATZA BERRIAK DEBAGOIENEAN

## Ekainak 14an zuzenean.

**Goitb**  
Goiena Telebista


*Ikusiko  
duzu!*

**Ekainak 14, zapatua**  
12:00etatik - 14:00etara

Aurkezlea:  
**Gorka Etxabe**



## KALEINKESTA/ AEDk bertsolaritza bultzetu gure dau; ze pentsetan jatzu?



**SANTI ARANA**  
Jubilaue

Ondo pentsetan jat, oso ondo. Euskeraz egitten dien gauzak ez jaku ba ondo pentsauko! Bertsuek gustetan jat, eta bertso afariren batera gustora juengo nitzake. Hori bultzetu egin biher da!



**MAITE IPARRAGIRRE**  
Langillie

Ondo pentsetan jat. Ia lortzen dauen bertsolaritzan gaiñien girue sortzie. Bertso afarixetara jueten naz, eta gaztie eta nagusixek elkarketan dienien pasetan dot onduen.



**GARBIÑE HERIZ**  
Langillie

Oso ondo pentsetan jat. Horreik gauza danok, aurrera! Duda barik, gaiñera. Bertsoan hasten dienien ez dittut ulerketan, baiñe aurrera! Eta eskoletan erakusten badaue, edarto.



**BITTOR ARRIARAN**  
Langillie

Ondo pentsetan jat. Euskal kulturie bultzaketako egitten dana ondo ikusten dot, eta sasoi honetan holako gehixago egin biher die, gaiñera. Eskolan erakustie oso ondo ikusten dot.



**ASUN LOPEZ DE BERGARA**  
Langillie

Oso ondo pentsetan jat. Gaiñera, neska-mutikuei gaztetatik erakusten badutzie bertsolaritza, gerora begira egoeriek onera egingo dau. Azken baten, bidie zabalketie da.



**JOKIN ASTOBIZA**  
Ikaslie

Oso ondo. Nere denporan ez neuen aukerarik euki eskolan bertsoan ikesteko, eta ondo ikusten dot. Bertso taillerrak egitten badittue, bertsolaritza bultzetu egingo daue.

## TXALOAK ETATXISTUAK



**TXALOAK LABAINKORTASUNA EKIDITEKO LANAK** Udala alde zaharreko hainbat kale eta kantoitako zoruak aldatzen dabil, hain justu, labainkorrenak diren puntuetan. Ez da lehenengo aldia Udalak labainkortasuna ekiditeko halako lanak egiten dituela. Oraingoan, marmola kendu eta granitoea ipiniko dute. Herritarren onurarako izanda, horrelako lanak egitea txalotzeko modukoak dira.

## ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 7

KULTURA / 14

GAZTEAK / 15

### Sexologia Bulegoa

Sexologia Zerbitzuko kideak sexuarekin lotutako hezkuntza lantzen dabilta.

### Ikuskizuna zapatuan

Kukai eta Tanttaka taldeek 1937. gogoaren bidezidoretatik ikuskizuna eskainiko dute zapatuan.

### Gaztetxe berria zabalik

Gaur, egubakoitza, gaztetxe berria zabalduko dute, 22:00etan. Uarkapen dago gaztetxea.

## ASTEKODATUA

# 70

### KILO BOTIKA ERAMAN DITUZTE NIKARAGUARA

Iñaki Agiriano mediku arrasatearra eta erizain bi Nikaraguarra joan dira. 70 kilo botika eta 6.000 euro eraman dituzte. Kontsulta pasatuko dute eta osasunaren gaineko eskolak emango dituzte.

## BESTEKESESANA

“Txanponaren alde biei begirata era honetako irudia ateratzen da: euskara erabiltzeko

hizkuntza izango da guretzat eta gaztelania eta ingelesa, berriz, ibiltzeko hizkuntzak. Euskaldun gisa egituratzen jarraitu nahi dugu, beraz, horixe delako zabalik egoteko, zabaldu ahal izateko, gure herriak duen modurik duinena. Gaztelania ere gu guztiona da, ezinbestekoa zaigu, eta arrazoi pragmatikoez eraginda ingelesa -eta beste batzuk- ere bai. Afektibitatea eta efektibotasuna, biak tartekatzen dira hizkuntz eleaniztasunaren katramila honetan, biei erreparatu behar zaie”.

**JULEN AREXOLALEIBA**  
'EUSKONEWS & MEDIA' / 03-05-30

## HERRITARREN BERBAK/ Iker Ezpeleta



*Informazioaren gizartean...*

**A**ldiriko kolaborazio hau idaztera nindoala, betiko lez, errepaso bat egin diet neure burutazioei, eta derrigorrezko kontu bezala ditxosozko hauteskundeak otu zitzaizkidan gai bezala. Hauteskundeak? Denok ernegatuta gaitu gaiak; kanpaina elektorala, edo gauza berdina dena, betiko gezurretaz nazkatuta; gero denek irabazi dutela eta beste guztiek galdu dutela...

Gainera... Ze garrantzi dute ematen diren gogoeta guztiek?

Denok daukagu “gure arrazoa” eta dena delakoa esaten delarik ere, ez gara hortik mugitu ere egingo.

Gainera berdin dio zeren inguruan idatzi eta zelan, nahiz eta astakeria handienak bota. Ez dago inolako erantzunik (eta noski ez naiz ari nire idatzi aldrebesez, orokorrean ikusten dudana joera orokor batez baizik). Ez dago eztabaidarik, dena dago eztabaidatuta, dena dago esanda... Noiztik ez duzue jarraitu, eta gutxiago erantzun,

lehen ugariak eta haserretzeko modukoak ziren gutun gurutatuen arteko eztabaida bat?

Informazioaren gizartean bizi garela esaten digute behin eta berrero, edo gain-informazioaren gizartean esango nuke nik. Honek guztiak dakarrena-ekin: desinformazioa eta deformazioa, hain zuzen ere. Saturatuta gaude, ezin dugu bonbardatzen diguten informazioaren zati txiki bat ere barneratu eta huskeriak bakarrik gordetzen ditugu. Hutsalkerietan itotzear gara.

Gauzak aldatu daitezke bai, zaila dugu zinez, baina horretarako borondatea behar da. Eta borondate izpirik ere ez dut sumatzen gizarte honetan; gauzak aldatzeko gero eta zailago dagoen gizarte honetan zeharo moldatuta gaude.

Eta gai horiekin jirabiraka ni neu ere galdu naizelakoan, hurrengora arte eta ondo segi (barkatu hori ilegalak ei da). Aurrerantzean ondo jarraitu esan beharko da?

**“Berdin dio zeren gainean idatzi eta zelan, nahiz eta astakeria handienak bota. Ez dago eztabaidarik, dena dago esanda”**

**Arrasate**

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

**ZUZENDARIA**  
Iker Barandiaran  
**ERREDAKZIOA**  
Ubane Madera  
Xabier Urzelai  
**MAKETAZIOA**  
Alex Azkarate  
**ZUZENTZAILEA**  
Sergio Azkarate

**PUBLIZITATEA**  
Arantzazu Lagunilla  
Izaskun Bolinaga  
Natali Martínez  
Imanol Elortza  
**ADMINISTRAZIOA**  
Agurtzane Gainzarain  
Ane Berezibar  
Iratxe Bengoa

**BANAKETA**  
Julen Aranguren  
**LEGE-GORDAILUA**  
SS-1124/88  
**ISSN**  
0214-4654  
**TIRADA**  
7.350 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaikoko  
Udala



**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 6**  
Azkoaga, Ferrerías 1 ..... 943 79 15 15
- ZAPATUA, 7**  
Azkoaga, Iturriotz ..... 943 79 79 99
- DOMEKA, 8**  
Corcuera, M. Aranbarri 1..... 943 79 22 26
- ASTELEHENA, 9**  
Irizar, Erguin 11..... 943 79 12 39
- MARTITZENA, 10**  
Amezua, Santa Marina 32..... 943 79 09 74
- EGUAZTENA, 11**  
Zabala, Zarugalde 42..... 943 77 16 30
- EGUENA, 12**  
Ruiz, Maala 31 ..... 943 79 14 09
- EGUBAKOITZA, 13**  
Español, Araba etorb. 17 ..... 943 79 18 65

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- ERIETXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea... 943 03 53 00  
Igalatorioa..... 943 71 26 91  
Santa Agédako Ospitalea:  
Gizonak..... 943 79 39 00  
Emakumeak ..... 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea ..... 943 79 90 11
- LARRIALDIK**  
SOS Deiak ..... 112  
Gurutze Gorria..... 943 76 55 76  
DYA ..... 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua ..... 943 46 11 11  
Astelohenetik  
egubakoitzera ..... 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan ..... 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa

- Arrasate**  
Astelohenetik  
egubakoitzera..... 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan..... 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:  
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50  
• Espezialitateak ..... 943 03 53 11  
• Ikuskatzailea..... 943 03 52 52  
• Kanpoko kontsultak ..... 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako Anbulantziak ..... 943 45 87 44

- ERTZAINZA**  
Arrasate ..... 943 79 71 99

- SUHILTZAILERAK**  
Udal taldea ..... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua..... 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea ..... 088

- MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua)..... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) ..... 943 12 01 62  
Gasa ..... 900 40 05 23  
..... 943 79 78 44

- GARRAIOAK**  
Taxiak ..... 943 79 12 22  
PESA..... 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza ..... 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuen egoitza ... 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron..... 943 77 01 05

**MEZAK**

- |                                                                                                                                  |                                                                                               |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>San Joan parrokia</b>                                                                                                         | <b>San Andres eliza</b>                                                                       |
| Zapatua<br>19:00 (elebiduna)                                                                                                     | Zapatua<br>19:00 (elebiduna)                                                                  |
| Domeka<br>09:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 meza nagusia (euskaraz)<br>12:30 (elebiduna)                                              | Domeka<br>10:00 (elebiduna)<br>11:00 (euskaraz)<br>12:00 (gaztelaniaz)<br>13:00 (gaztelaniaz) |
| <b>San Frantzisko eliza</b>                                                                                                      | <b>Santa Teresa eliza</b>                                                                     |
| Zapatua<br>19:00 (elebiduna)                                                                                                     | Zapatua<br>19:00 (elebiduna)                                                                  |
| Domeka<br>09:00 (euskaraz)<br>10:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 meza nagusia (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)<br>19:00 (gaztelaniaz) | Domeka<br>11:00 San Isidron (euskaraz)<br>12:00 (gaztelaniaz)                                 |
| <b>Uribarri parrokia</b>                                                                                                         | <b>Santa Marinako eliza</b>                                                                   |
| Zapatua<br>19:00 (elebiduna)                                                                                                     | Jai egun bezpera eta zapatua<br>19:00 (gaztelaniaz)                                           |
| Domeka<br>11:30 (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)                                                                                | Domeka<br>12:00 (gaztelaniaz)                                                                 |

**OHARRAK**

**GUTXITU PSIKIKOEN EGUNA**

Domekan, ekainaren 8an, Gutxitu Psikikoen Eguna izango da. SUDCek honako egitaraua antolatu du: 13:00etan, trikitilariak alaitutako kalejira egingo dute; 14:30ean, Alkartun bazkaria egingo dute; eta 16:00etan, Uarkape pilotalekuan jokoak, musika eta opariak egongo dira.

**ALKOHOLIKO ANONIMOAK**

Martitzenean, ekainaren 10ean, Alkoholiko Anonimoek 68. urteurrena ospatuko dute. Arrasate pasealekuko egoitzako ateak zabalduko dituzte guztiendako.

**ELKARRIEN BERBALDIA**

Ekainaren 11n, eguaztena, Elkarririk berbaldia antolatu du osoko bilkura aretoan, 19:00etan. Berbaldiaren leloa *Blokeoaren aurrean, elkarriketaren alternatiba. Berrirori saiatuko gara?* da, eta hizlaria Fernando Arzallus izango da.

**ESK-REN BERBALDIA**

Ekainaren 9an, astelehena, ESK sindikatuak berbaldia antolatu du osoko bilkura aretoan, 19:00etan. Berbaldiaren leloa *Oinarrizko errenta* da eta hizlariak honako hauek izango dira: David Casassas Bartzelonako ekonomista eta ESK-ko Angel Abalde.

**AEDren AGENDA**

**'EGUNKARIA'-REN ALDE**

Ekainaren 14an egunkari berriaren aurkezpena egingo dute Anoetako belodromoan. Sarrerak AEDn daude salgai. Bestalde, herrian *Egunkaria*-ren aldeko mahaiak jartzen dabilta: astelohenetan, Eroskin; eguaztenetan, Iturriotzen; eta eguenetan eta egubakoitzetan, Arbola-petan. 18:00etatik 20:00etara bitartean jartzen dituzte.


**URBANOEN ORDUTEGIA**

- Gorostizatik Eroskira**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**ORAINDELA 10URTEARRASATEN**

**Enplegu Sustapen Programak harrera ona**


Udalak antolatutako Enplegu Sustapen Programak harrera ona izan zuen. 11 proiektu aurkeztu zituzten: besteak beste, eskualdeko txakurtegia, karrozeria tailerra, orein okelaren ekoizpena, itzultzaile zerbitzua, turismo enpresa bat eta material birziklagarria batzeko zerbitzua.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Besakara"*

1. Besakada, besoak bete gauza.  
— *Joan txabolara ta besakara bat egur ekarri.*
2. Beso kolpea.  
— *Egundoko besadaria bota najotsan pelotiai ta kale.*



GORKA ORTEGA

**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**Xabier Zubizarretari elkarrizketa**

Martitzenean, hilak 10, Xabier Zubizarreta izango da Arrasate Irratian, 09:30ean. Arrasateko alkate izan da azken urteotan Zubizarreta, eta urte horien gaineko balorazioa egitea eskatuko diogu. Elkarrizketa hori entzun ostean Reala izango dugu hizpide *Hileko galdera* deritzon tartean. Azken asteotan Realaren gaineko galderak egin dizkiegu hainbat laguni, eta martitzenean beste lagun batek emango digu iritzia. 10:30ean izango da.



**Josune Bereziartu asteko gainbegiratuan**

Aste honetan Josune Bereziartu elkarrizketatu dugu Arrasate Irratian. Eskalatzaila ospetsua Arrasaten egon da Besaideko Mendi Astearen barruan diapositiba emanaldia egiten, baina herriko irratitari ere eskaini dizkio minutu batzuk. Elkarrizketa hori zapatuan eta domekan emango dugu, baita *Kontu kontari* sailean kaleetako jaien gainean izan dugun solasaldia ere. 11:00etan eskainiko ditugu elkarrizketa horiek guztiak.

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Eguaztena, 28	<b>6 °C</b>
<b>MAXIMOA</b> Egubakoitza, 30	<b>34 °C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m²)</b>	<b>15,7 L</b>

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 28	30 °C	6 °C	— l/m²
Eguena, 29	33 °C	11 °C	— l/m²
Egubakoitza, 30	34 °C	12 °C	— l/m²
Zapatua, 31	26 °C	17 °C	0,7 l/m²
Domeka, 1	25 °C	17 °C	6,1 l/m²
Astelehena, 2	24 °C	14 °C	— l/m²
Martitzena, 3	28 °C	15 °C	8,9 l/m²

San Joan auzoan jasotako datuak



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**  
09:00 Albistegia  
09:30 Igo autobusera  
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
10:06 Igo Autobusera.  
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.  
11:30 Egurdiko hamabiak arte: efemerideak, zozketak, zorion agurrak...  
12:00 Euskadi Irratiko albistegia  
12:06 Musika berriaren tarte.  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.  
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra
- ASTELEHENA**  
20:00 **MIR:** Gaizka Vitoria eta Iban Idigoras.
- MARTITZENA**  
20:00 **Txortxorrien:** Mikel Aranburu eta Jokin Etxebarria.
- EGUBAKOITZA**  
19:00 **Planing Prest:** Deiane Arrieta
- ZAPATUA**  
11:00 **Asteko elkarrizketak:** Josune Bereziartu, Araba Euskaraz, Oktubre Taldea, Debagoieneko Fusilatuen Senitartekoak...
- DOMEKA**  
11:00 **Asteko elkarrizketak**



## ASTEABIHITZETAN

### Kale bilkura isila atentatua gaitzesteko

Zangozako atentatua salatzeke kale bilkura isila egin zuten Arrasaten joan den astelehenean, hilaren 2an. Ibarretxe lehendakariak egindako deiarekin bat eginez, udaletxearen aurrean elkartu ziren Ezker Batuko eta PSE-EEko zinegotziak eta, haiekin batera, zenbait herritar. Guztiek ere Bonifacio Martín eta Juan Embid polizia nazionalen hilketa salatu zuten.

### MUren eta Emun-en arteko hitzarmena

Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eta Emun Kooperatibak hiru urterako hitzarmena sinatu dute.

Helburu bi ditu bi erakundeen arteko hitzarmenak: batetik, txikitzea HUHEZIREn partaidetza Emun-en; eta bestetik, erakunde bien arteko lankidetzatza bultzatzea. Horren harira, besteak beste, bien interesekoak diren proiektuetan lankidetzatza bultzatu gura dute; adibidez, Emun-ek bere egitura egokitu du HUHEZIKo ikasleek praktikak eta ikasketa amaierako proiektuak kooperatiban egin ditzaten. Bestalde, HUHEZIK zeresana izango du Emun-eko langileak prestatzeko orduan.

### Organo emaile izateko

Joan den martitzenean, hilaren 3an, organo emaileen nazioarteko eguna izan zen. Oraindik ere asko dira bizi izaten segitzeko organo berri bat behar duten lagunak; horregatik, martitzenean mahaia ipini zuten Arrasaten. Portaloian egon ziren goizez eta arratsalde, organo emaile berrien izenak hartzen eta informazio orokorra ematen.

Osakidetzako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan organo emaile kopuru handia dago. Are gehiago, munduan organo emaile gehien dituen herrialdea da.



### Konpartsa berrindartzeko

Arrasateko kilikien eta erraldioen konpartsa desagertzeaz dagoela eta erakusketa egin zuten zapatuan. Garai baten konpartsa horrek zuen indarra berreskuratzea eta gai horrekiko herritarren arreta piztea zen erakusketaren helburua. Goizez eta arratsalde egon ziren plazan.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

## Historiak ezkutaturakoa

**A**spaldian, Euskal Herriko hainbat lekutan 1936ko gerran gertatutako jazoera latzak gogora ekarri dituzte. Horiek gogora ekarri, salatu eta justizia egin dadin lanean dabilta asko eta asko.

Gure ibarrean ere bada halakorik, noski. 1936ko gerran sarraski ugari izan ziren eta bi taldek ezkutaturako historia hori agerian

uzteko lan gogorra egiten dihardute. Batetik, Oktubre Taldea. 1987an *Arrasate 1936. Belaunaldi etena* liburua kaleratu zuen. Berehala agortu zen, noski. 16 urte geroago, izugarriko dokumentazio lana egin ondoren, informazioa osatu eta liburu mardulagoa kaleratu dute. Asteburuan jarriko dute salgai.

Bestetik, Debagoieneko

Fusilatuen Senitarteko eta Lagunen Batzordea. 1936az geroztik gertatutako sarraski haien lekuko izan ziren hainbat lagun eta senitarteko batu eta, barruko heldur, pena eta amorru guztiari aurre eginez, kanpora atera dute bizitakoa eta ezagututakoa. Asteburuan fusilatutakoei omenaldia egingo diete, eta barruan gordeta zuten hori guztia atera dutenentzako, senide eta lagunentzako, ere bada omenaldi hori. Merezia dute.

## ASTEKOIRUDIA



XABI URZELAI

### ESPAINIAKO GERRAREN ONDORIO LATZAK JASAN ZITUZTENEN ALDE

Espainiako gerran fusilatu zituztenen eta desagertu zirenen gaineko erakusketa bukatzeaz dago, etzi, domeka, erretiratuko dute eta. Monterronen egon den artean herritar dezente pasatu da hura ikustera. Hori bai, gehienak pertsona nagusiak izan dira; eta, batez ere, komeniko litzateke belaunaldi gazteagoek ere

ikustea, sasoi hartan gertatu zenaren berri izateko eta gertatutakoa belaunaldiz belaunaldi transmititzen joateko. Orain, bada, beste aukera bat daukagu: aurkeztu berri duten liburua irakurtzea; besteak beste, fusilamenduen, torturen, kartzelaren eta erbestearen berri dakar. Eta domekan, omenaldia.



**BASATI**  
**TABERNA**

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

TEL. 943 711762

**ZUBIZARRETA**  
**LANTEGIAK**

Gipuzkoa etorbidea 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65

*Sili Sili*

**Martxa eta estilo handiko arropa**

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82



GIZARTEA/ 'Arrasate 1936 Belaunaldi Etena' liburuaren bigarren edizioa argitaratu dute

# Arrasateko historiaren XX. mendeko lehenengo 40 urteak: belaunaldi etena

UBANE MADERA

**Arrasate 1936 Belaunaldi Etena** liburuaren bigarren edizioa argitaratu dute. Lehenengo edizioarekin alderatuz, osatua da, bai informazio aldetik baita argazki gehiago dagoelako ere. Astelehenean ipiniko dute salgai, liburu dendetan eta Monte tabernan.

Arrasaten eta ibarrean izan ziren gertaera latzen kontakizuna dakar liburuak. XX. mendeko lehenengo 40 urteetan gertatutakoa, hain zuzen: Industria Iraultzatik hasi eta Espainiako gerrara arteko kontakizunak laburtzen ditu.

Martitzenean, hilaren 3an, aurkeztu zuten udaletxeko areto nagusian. Egileak (Oktubre Taldea: Arrate Landa, Jabi Balanzategi, Andoni López de Munain, Aitor Landaluze eta Juan Ramon Garai) eta Arabera argitaletxeko ordezkariak egon ziren ekitaldian. Eurek honela aurkeztu zuten liburua: "Gizon eta emakume errepublikar, nazionalista eta ezkerreko batzuen historia jasotzen du liburuak; altxamendu faxistak ebaki zien bizia gizon-emakume haiei (...). Gerran asko eta asko borrokan hil ziren; beste batzuk fusilatu egin zituzten eta beste asko atzerrira joan ziren. Arrasatera itzuli zirenek, kartzelan urteak eman eta gero, 40 urte eman zuten errepresioaren mendean. Belaunaldi hura etenda geratu zen gertakari haien ondorioz".

Adierazitakoaren arabera, liburuaren lehenengo edizioa argitaratu zutenetik 16 urte pasatu dira; edizio hura agortuta dago eta gaia jendearendako interesekoa da; hala, orain desagertutako eta gaia berreskuratu egin dutela aprobetxatuta, Oktubre Taldeak erabaki du liburua berriro argi-



Oiartzunen, 1937an, fusilatuen gorpuak kanposantu barruan hilobiratzen zebiltzaneko argazkia.

ARRASATE 1936 BELAUNALDI ETENA LIBURUA

taratzea: gertatutakoa hobeto ulertzen laguntzeko, gertaerek gaur egun duten ondorioak ulertzen laguntzeko eta, jakina, hori guztiori ez ahazten laguntzeko.

#### GAI BERRIAK

Lehenengo edizioarekin konparatuz, gai berriak gehitu dituzte oraingo honetan. Adibidez, Zelestino Uriarte arrasatearraren biografia: "Zelestino Uriarte ia 40 egunez izan zen torturatua (37 jipoi eman zizkioten). Tortura saio bakoitzaren ondoren konortea galtzen zuen, beti zegoen odoletan (...).

*"Gizon eta emakume errepublikar, nazionalista eta ezkerreko batzuen historia jasotzen du"*

Eraman zuten ospitalean oso ondo zaindu zuten moja euskaldun bat ezagutu zuen. Hark bere arropetatik geratzen zena jaso (azal zatiak arropetan, odolez bete-

*"Uriarte ia 40 egunez izan zen torturatua (37 jipoi eman zizkioten); konortea galtzen zuen"*

ak...beldurgarria) eta Arrasatera bidali zuen. (...). Zelestinoren bizitza salbatzeko, nazioarteko kanpaina bateratua jarri zen abian Europa osoan".

Gerran parte hartu zuten milizianoen eta gudarien zerrendak eta erreketen argazkiak eta zerrendak ere berriak dira; bestalde 45 argazki gehitu dituzte (17 fusilatuenak). Eta horrez guztiaz gain, 48 agiri berri eta testigantza berriak jaso dituzte.

#### GERTUTASUNA

Liburua idazteko Oktubre Taldeak lan handia hartu duela nabarmena da. Azpimarratzekoa da, adibidez, dauden agiri mordoa; argazkiak, eta batez ere, testigantza ugariak. Horrek guztiak liburu erakargarri eta gertukoa egiten dute, oso gertukoa. Azken baten Arrasateko eta inguruko historia kontatzen digu, orain arte oso gutxitan entzun eta kontatu diren gertaeren historia. Testigantza latzak dira, eta samingarriak: 22 preso igo ziren kamioira, herriko margaritak bitartean irainka ari zitzaizkiela; arrasatearrak 10 ziren, eta gainerako-

*Azpimarratzekoak dira, adibidez, liburuan dauden agiriak, argazkiak eta testigantzak*

ak Gatzaga, Marin eta Aretxabaletoak; kamioi gainera igo eta elkarriz sokaz lotu, eta Donostia aldera eramane zizuten (...). "Ondarretara joan ginen berriro: iritsi zitzaigun txanda, erakutsi genion baimen idatzia, begiratu zuten liburu handi batean, eta esan ziguten "zuen senarrak libre utzi dituzte, inolako gaiztakeria politikoren errudun aurkitu ez dituztelako" (...). Pozaren pozez Arrasatera itzuli ginen berriro, ustez etxean aurkituko genituelakoan, baina etxera ez ziren azaldu. Berriro kartzelara joan ginen, eta han batzuei erantzun ziguten "langile faltan nola dabilzan, mahatsa biltzera edo segara eramango zituzten"; beste batzuei, berriro, "Bartzelonara eramane dituzte, txipiroiak harrapatzerira". Orduantxe konturatu ginen gu hil egin zizkigutela".

Zoritxarrez, halako ugari jaso ditu liburuak; zoritxarrez halako ugari gertatu zirelako. Baina gure historiaren zati; eta ez ditugu ahaztu behar. Berriro errepikatu e daitezten.

Hazia erein zenutenoi. Beti gogoan.



ARRASATE 1936 BELAUNALDI ETENA LIBURUA

Erdiko kalean, Franco jeneralaren izena jarri zitzaionean.



HRIGINTZA/ Zabaletako zubiak

# Hil honen amaieran zubi berria zabalduko dute

UBANE MADERA

Azkeneko lanak egin ostean, hil honen amaieran bukatuko dituzte Zabaleta inguruko obrak. Tartean, oinezkoek errepidea gurutzatu ez dezaten oinezkoendako bidea egingo dute hantxe dauden bi zubien azpitik.

Joan den egubakoitzean probakarga egin zuten zubi berrian, gaur egun itxita dagoen zubian, hain zuzen ere. Kamioiak eta pisu handiko ibilgailuak ipini zituzten zubiaren gainean, zubiak eusten ziren edo ez frogatzeko. Eta bihar zubi hori asfaltatzen hasiko dira. Hala jakinarazi digu Udaleko Hirigintza Sailak. Emandako datuen arabera, behin asfaltatze lanak amaitutakoan, orain arteko ibilgailuen desbideraketa aldatu egingo dute, eta zubi berritik pasatzen hasiko dira Arrasate-Bergara-Arrasate errepidea erabiltzen dutenak. Hala, gero hesi gogor bat ipiniko dute, eta zubi berritik industrialderako dagoen sarrera itxi egingo dute. Helburua zera da: gaur egun erabiltzen den zubitik egitea industrialderako sarrera hori.

## OINEZKOENDAKO BIDEA

Hori guztiori egiten dabilzan bitar-



Oinezkoendako pasabidea egingo dute zubi bien azpitik.

tean, oinezkoendako bidea ere egingo dute. Helburua da gaur egungo moduan errepidea gurutzatzen ibili beharrean, oinezkoak errepide azpitik pasatzeko bidea egitea. Bide hori asfalto gorriarekin estaliko dute, Gernika Oinezkoen Zumardia moduan. Eta behin hori egin da, gaur egun erabiltzen den zebra-bidea kendu egingo dute.

## HIL BUKAERAN

Aurreikusitakoaren arabera, lanen azken erremateak egin eta ekainaren amaiera alderako guztia

bukatuta egongo da, lanean urtebete inguru ibili eta gero.

Baina, era berean, gogoratu beharra dago aurrera begira Gipuzkoako Foru Aldundiak lan gehiago dituela zehaztuta inguru horretarako.

Hain zuzen ere, Eibar-Gasteiz autobideak irteera izango du Epele, eta Diputazioaren asmoa da irteera hori eta Zabaletako biribil-lunea lotzea. Besteak beste, errei gehiago egingo dituzte.

Orain, hori guztiori egiteko proiektua idazten dabilta.

GIZARTEA/ Sexologia Bulegoa

# Sexologiarekin lotutako hezkuntza lantzen

Sexologia Bulegoaren ardura hartu duen Zirrida elkarteak sexologoak hasi dira sexologiarekin lotutako hezkuntza zabaltzen Arrasaten. Zenbait hitzaldi egin dituzte orain arte: 0 eta 6 urte arteko sexualitatea, nerabeen sexualita-

tea, gurasoei zuzendutako beste hitzaldi bat... Eta, jakinarazi digutenez, ekainean Almen ikastetxeko zuzenduta lau hitzaldi-lantegi egingo dituzte. DBHko laugarren mailakoendako izango dira lantegiok. Horren barruan, adibidez,

ahaleginduko dira ume bihurtu eta euren sentsazioetatik, emozioetatik erantzuten. Lehenengo, joko erotikoak aztertuko dituzte (gorputzaren miaketa sentsazioen bidez, medikuntza jolastea, masturbazioa...) eta hiesaren eta nahigabeko haurdunaldiaren gainean egingo dute berba, besteak beste.

Aurrera begira ekimen gehiago egiteko asmoa dute Arrasateko Sexologia Bulegoko kideek. Betiere, Arrasaten dagoen beharra eta eskaera aztertuta joango dira antolatzen euren lana.

## ZERBITZU ZABALAGOA

Martxoan aurkeztu zuten Sexologia Bulegoaren ardura hartu zuen lan-talde berria: Zirrida elkarteak. Besteak beste, orain arteko zerbitzua zabaldu gura zutela iragarri zuten, eta edozein zalantza argitzeko eta edozein laguntza emateko gertu daudela esan zuten. Hona hemen horretarako telefono zenbakia: 943 79 80 10



Zirrida elkarteak kideak dira martxoan ezkerre Sexologia Bulegoko sexologoak.

## LABUR

### Ingurumen eta Hezkuntza batzordeen dirulaguntzen banaketa onartu dute

Oraingo asteko Gobernu batzordeak Ingurumen batzordearen dirulaguntzen banaketa onartu du. Hala, EBAEk energia berriztagarrien gaineko ikastaroa antolatzeko 5.000 euro jasoko ditu eta inguruko ekosistemak duen ondare historiko, kultural eta ekologikoaren gaineko film laburra ekoizteko, berriz, 7.500 euro. Horrez gainera, Ekologistak Martxan taldeak 2.500 euro jasoko ditu naturaren babesaren aldeko ekintzak eta kontsumismoaren kontrako kanpaina egiteko.

Bestalde, Hezkuntza batzordeak 9.000 euro pasatxoko laguntza emango du Eskola Politeknikoaren Goier proiekturako eta beste 2.000 euro pasatxo Helduen Hezkuntza Iraunkorreko zentrorako.


### Mendekoste jaia ospatzeko gaualdia egingo dute bihar, zapatua

Arrasateko Kristau Elkartek Mendekoste jaia ospatzeko dei egin die herritarrei. Hain zuzen, otoitzaldia antolatu du elkarteak: Mendekoste Gaualdia. Bihar, zapatua, izango da, 21:00etan. Baina adi ibili; izan ere, Udalara bidean dagoen Kontzesioko komentuan egingo dute otoitzaldi hori.

Horrekin batera, jakinarazi dute gura duenarendako automobil partikularrak egongo direla. 20:30ean irtengo dira auto horiek, Garibaiko geltokitik.

### Zabalik dago katekesiko lehenengo mailan hasteko izena emateko epea

San Juan parrokiako Katekesi batzordeak jakinarazi digu datoren ikasturtean lehenengo mailan hasiko diren umeen izenak emateko epea honako egun hauetan izango dela: ekainaren 9an, 10ean eta 11n. Izena emateko gurasoak Abadetxera joan beharko dira eta han fitxa bat bete beharko dute. Umeen xehetasun pertsonalak jasoko dituzte fitxa horretan. Izena emateko eta fitxa betetzen laguntzeko katekistak egongo dira 16:30etik 18:00ak arte.



### Gutxitu psikikoen aldeko jaia

Urteroko ohiturari eutsiz, etzi, domeka, gutxitu psikikoen aldeko eguna ospatuko dute Arrasaten. SUDC elkarteak antolatuta, jaia eguerdian hasiko da: trikitilariekin kalejira egongo da 13:00etan; eta kalejiraren ostean, 14:30ean, Alkartu elkartearen bazkaria egingo dute: paella, okela eta postrea. Bazkalostean Uarkapera joango dira; izan ere, han musika eta jokoak izango dituzte. Eta, betiko moduan, opariak emango dizkiete jaiaren parte hartzen duten guztiei. SUDC elkarteak uste du 50 bat lagun elkartuko direla domekako jaiaren.



ELKARRIZKETA

IÑAKI AGIRIANO/MEDIKUA

“Kontsulta pasatzeaz gain, hango jendea hezi egin gura dugu”

ARRASATE IRRATIA

Nikaraguaraino goaz segidan. Izan ere, gaur, egubakoitza, maletak egin, eta bi erizainekin batera hara joan da Iñaki Agiriano. Medikua arrasatearra da, laugarren urtez doa hara, eta, besteak beste, 70 kilo botika daramatza.

Nora zoaz?

Granadako eta Masaiako auzo banatan egingo dugu lan. Iaz leku berera joan nintzen. Eta inportanteena da lan egin behar dudan lekuko jendeak eta neuk elkar eza gutzen dugula; eta badakigu nondik nora lan egin behar dugun, baita zelan egin behar dugun ere. Hala, iaz baino lan gehiago egiteko asmoa dugu, baina hobeto antolatuta. Dena dela, betiere, prestatutakoa prestatu arren, aldatetak egoten dira. Oso herri berezia da, eta gauza asko han bertan ikusten dira.

Zer egiteko asmoa duzue?

Asmoa da joan den urtean moduan kontsulta pasatzea. Horrez gain, aurten hango jendea hezi egin gura dugu osasun arloan. Auzo bakoitzean 20 bat laguni eskolak emango dizkiegu, osasunaren gainean. Hala, gero eurek auzorako anbulatorioa edo osasun etxea egin dezakete.

Aurreko urteotako esperientziak zer diotsu?

Gauza asko daudela egiteko. Ezin direla denak batera egin, eta gure asmoa dela urtero joatea.

Eta, hara joateaz gain, urtean lanean ibili zarete, ezta? Besteak beste, 70 kilo pasatxo botika eramateko asmoa duzue...

Bai. Batzuk laborategiek



UBANE MADERA

emandakoak dira eta beste batzuk guk Farmaceuticus Mundiri erositakoak. Han behar dituzten medizinarak dira; hemen gehienak ez dira erabiltzen. Hesteetako gaitotasunetarako, biriketako eta azaleko infekzioendako, adibidez, baina gehienbat garbitasunerako.

Eta, horrez gain, diru kopuru polita ere eraman behar duzue, ezta?

Aurten zorte ona izan dugu; izan ere, gure proiektua Udaleko Gizarte Zerbitzuei aurkeztu genien eta 6.000 euroko laguntasuna eman digute. Asmoa da antolatzen hasi behar dugun kontsulta hori, gero, urte osoan zabalik egotea hango mediku batekin eta hango farmazia medizinar bete, auzoko jendeak gero merke erosi ahal ditzan.

Iturbide egoitza berritzeko asmoa duela-eta, lehiaketa deitu du Udalak

Iturbide egoitzak berritzeko beharra duela erabaki du Udalak. Hala, oraingo asteko Gobernu batzordeak onartu egin du lan horiek egiteko Hirigintza Sailak aurkeztutako txostena, eta proiektua idazteko laguntza teknikoak esleitzeko lehiaketa deitu du.

ZERBITZU ALDAKETA

Hirigintza Sailak aurkeztutako txostenean adierazten dutenez, eraikina eta haren instalazioak pertsona nagusi autonomoak hartzeko egin zituzten egoitza eraiki zutenean. Baina, denbora pasatu ahala, Iturbide egoitzak ematen duen zerbitzuan aldaketa

sakona gertatu da. Izan ere, 98 pertsona nagusi autonomori arreta ematek, gaur egun, egoiliarren %80 besteekiko dependentsia eta besteekiko dependentsia handia dutenak dira. Eta epe motzera edo ertainera begira zehaztu dute Iturbide egoitzan egongo diren pertsona nagusi gehienak goian aipatutakoen modukoak izango direla, besteekiko dependentsia dutenak, alegia.

EGOKITZEKO BEHARRA

Gauzak horrela, bai Arrasateko Udalak baita Diputazioko Gizarte Zerbitzuak ere ikusi dute Iturbide egoitzako instalazioek

behar horietara egokitu behar dutela. Eta hori egiteko proiektua idazteko deitu dute lehiaketa. 29.100 euroko aurrekontua egongo da horretarako. Interesa duten enpresek ekainaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dituzte euren proiektuak; eta gero, zazpi hilabete izango dituzte egiteko.

EGOKITZEKO BEHARRA

Zerkaosteta kalean dagoen Iturbide egoitza 1984an zabaldu zuten. Gutxi gorabehera 850 metro koadroko azalera dauka, hori guztiori lau solairutan banatuta (hiru solairu eta beheko aldea).

LABUR

Emakume Batzordeak Arrasateko emakumeendako 3.000 euroko beka eskaini du

Emakumeei zuzendutako beka plazaratu du bigarren urtez Udaleko Emakume Sailak. Emakumeen eta gizonen artean berdintasuna bultzatzeko helburuarekin, emakumeen bizitza publikoa bultzatu gura dute beka horren bitartez. Hala, 3.000 euroko beka eskaintzen dute, Arrasateko emakumeei zuzendutakoa. Edozein motako proiektuak aurkeztu daitezke beka lortzeko, besteak beste, ikerketa proiektuak, enpresa proiektuak, proiektu artistikoak, kirol proiektuak eta ikasketa proiektuak.

Bestalde, aipatutako batzordeak emakume taldeei zuzendutako diru laguntzak eskatzeko deialdia zabaldu du. Taldeek ekainaren 20a baino lehen aurkeztu beharko dituzte eskaerak.


Oinarrizko errentaren gaineko berbaldua antolatu du ESK sindikatuak

Datorren astelehenean, hilaren 9an, oinarrizko errentaren gaineko hitzaldia izango da osoko bilkuren aretoan ESK sindikatuak antolatuta. Hitzlari bi izango dira: batetik, Bartzelonako Unibertsitateko Soziologia irakasle David Casassas; eta bestetik, ESK-ko batzorde nazionalako kide Angel Abalde. Hain zuzen ere, David Casassas Oinarrizko Errenta Sareko kide da, irakaskuntza sindikalgentzarekin eta politikarekin bateratzea helburu duen sareko kidea, hain zuzen ere. Hitzaldia 19:00etan hasiko da.

EAJ-EA koalizioak esker ona adierazi gura die berarengan konfiantza izan dutenei

Hauteskundeak ditugu berbegai berritzaile ere; izan ere, Arrasateko EAJ-EA koalizioak ohar bat bidali digu, eta ohar horretan bere boto-emalderi esker ona adierazten die EAJ-EAK.

Hain zuzen ere, koalizio horretan jarritako konfiantza esker-tu gura du EAJ-EAK; eta, era berean, jakinarazi du aurrera begira egin beharreko lana egiteko orduan iruzurrik ez egitea espero duela.



Tortura salatzeke ekimenak aste osoan

Arrasateko Torturaren Aurkako Taldeak antolatuta, torturaren kontrako astea egin dute. Astelehenean hasi eta domekara arte izan dira ekimenak. Astelehenean torturaren gaineko erakusketa egin zuten plazan, eta torturaren kontrako sinadurak batu zituzten. Eguaztenean, hitzaldia izan zen Udaletxean; Torturaren Aurkako Taldeko kide batek eta torturatu egin zutela salatzen zuten gazte baten amak egin zuten berba. Egubakoitzean manifestazioa izan zen, eta zapatuan herriko zenbait artisauk arte-lanak egin zituzten. Horrez gain, horma-pintura egin dute.



## BESAIDKO MENDIZALEAK HIRU ERREGEEN MAHAIAN

**B**esaideko Mendi Astea arrakastatsua izan ohi da, eta aurtengoa ere ez da gutxiago izango. Asteon egin dituzten ekitaldi mordoaz gain, joan den aste bukaeran, aspaldiko partez, mendi irteera antolatu zuten. 30 lagun Pirinioetan egon ziren, eta oso ondo pasatu zuten. Zapatuan Belaguetik Linzako aterpera ibilaldia egin zuten eta domekan Hiru Erregeen Mahaira igo ziren.



## ZIAR-OLA ELKARTEA INAUGURATU ZUTEN

**J**oan den domekan inauguratu zuten Ziar-Ola elkarteak. 110 bazkide izango ditu elkarteak eta horietako gehienak San Isidro elkarte zaharreko kide izanak dira. 12:30ean egin zuten elkartearen inaugurazioa. Zinta moztu eta elkarteak bandera eta Ikurrina jarri ondoren, argazki ofiziala egin zuten. On Pablo Barrenak elkarteak bedeinatu zuen eta horren ondoren luntxa izan zuten.







XABIER URZELAI

Joan den urteko txapelketan bero itogarria egin zuen.

## ERRUGBIA

## Zazpinako V. Errugbi Txapelketa eta Garagardoaren Jaia aste bukaeran

Gaur arratsaldeko zazpitan irekiko dute Herriko Plazako karpa

XABIER URZELAI

**Oraingo aste bukaeran ere egongo da zer ikusi eta zer dastatu: ikusteko, Nazioarteko Zazpinako Errugbi Txapelketa; eta dastatzeko, Alemaniako garagardo onena. Errugbia eta garagardoa batera doaz Arrasaten, eta aurten ere giro ezin hobea egongo da plazan.**

Horretarako lanean ibiliko dira Arrasate Errugbi Taldeko mutiak: bai zelai barruan, baita karpa barruan ere. Aurten 12 talde izango dira txapelketan: Donostiako Bera-Bera, Elorrio, Bilbo, Leongo Unibertsitatea, Bordeleko BUC, Akitaniako selekzio bat, Durango, Eibar, Hernani, Euskal Selekzioa (promesak deritzona),

Ordizia eta Arrasate. Zazpinako Txapelketa bihar jokatu da, 15:00etan, Atxabalpen, eta goizean (11:30) Arrasate eta Donibane Garazi taldeen arteko kadete mailako partidua egongo da ikusgai.

**EMAKUMEZKOAK ERE BAI**

Arratsaldean, Zazpinako Txapelketaz gain, emakumeen arteko partidua ere egongo dira. Lau taldek jokatu dute: Elorrio, Gernika, Durango eta Atletico San Sebastian. Partidu horiek zazpinako txapelketarekin batera jokatu dituzte Atxabalpen.

Lehen ere esan dugu Arrasaten errugbia eta garagardoa elkarrekin doazela, baina ez edozein garagardo, garagardo onena bai: Alemaniakoa. Gaurtik hasi eta domekara arte Herriko Pla-

zako karpan Alemaniako garagardoz eta beste hainbat produktuz gozatu ahal izango da. Karpa gaur, egubakoitza, irekiko dute, 19:00etan, eta afaltzeko aukera egongo da. Gauean (23:00), berriz, hamaika musikariz osatutako taldeak jazz-blues estiloko musika emanaldia egingo du.

Bihar, berriz, eguerdian irekiko dute karpa eta gura beste garagardo egongo da bertara hurreratzen direnendako. Iluntzean txapelketako sari banaketa eta bazkideen arteko zozketa egingo dute, eta gau partean beste musika emanaldi bat egongo da. Aurten ere ederto pasatzeko aukera eskainiko du Arrasate Errugbi Taldeak, bai Atxabalpeko zelaietan, baita Herriko Plazan izango den karpan ere.

## Mondrari azken unean egin zion ihes Euskal Ligarako txartelak

Ohorezko mailako Mondrak ezin izan zuen Euskal Ligarako txartela eskuratu zapatuan. Mondrak hiruko torneo polita egin zuen, baina Raul Leibaren mutilei azken unean egin zion ihes mailaz igotzeko aukerak. Lehenengo partiduan Arabako Calasanz eta Bizkaiko Zugazarte taldeek neurtu zituzten indarrak. Bizkaitarrak nagusitu ziren (1-0). Gero, Mondrak Calasanzren kontra joka-

tu zuen. Arrasateko mutiak ondo jokatu, eta erraz nagusitu ziren (4-0). Azken partidua geratzen zen jokatzeko: bizkaitarrak gipuzkoarren kontra.

Norgehiagokak 45 minutu iraun zuen, eta minutuek aurrera egin ahala, bi taldeetako inork ez zuen golik egiten. Mondrarendako huts eta hutsekoa emaitza ona zen, baina partidua amaitzeko hamar minutu falta zirela,

epaileak Mondraren kontrako penaltia adierazi, eta hortxe joan zen arrasatearren ametsa. Areetako taldea 0-1 nagusitu zen, eta partidu bakoitzean gol bakarrekin sailkatu da Zugazarte Euskal Ligarako. Arrasatearrei dago kienez, zorionak, denboraldi polita egin dute-eta. Seguru asko datorren urtean ere hor goian ibiliko direla, badaukate-eta horretarako taldea.

## Josu Tornay Espainiako Xake Bizkorreko Txapelketan izan da

X.U.

Joan den urtean Espainiako Xake Bizkorreko Txapelketa irabazi eta gero, aurten ere txapelketa hori jokatzeko txartela zuen Josu Tornayk. Txapelketa joan den aste bukaeran jokatu zen, Bartzelonan, eta Arrasateko xake taldeko jokalaririk joan den urtean egin dako lan biribila egin ez badu ere, Josu Tornay gustura geratu da lortutako emaitzarekin.

Txapelketa zapatuan eta domekan jokatu zen, guztira bederatzi partida izan ziren, eta Tornayk bederatzi partida horietatik lau irabazi, lau galdu eta bat berdindu zuen. Ondo hasi zuen txapelketa Mondragoeko xakelariak: lehenengo partida biak irabazi

egin zituen, eta bigarren garaipena meritu handikoa izan zen, Gaztelako Pablo Martinezi irabazi zion-eta. Hirugarren partida Joan Pomes nazioarteko maisuarekin kontra galdu zuen, eta laugarrenean berdinketa egingo zuela uste zuenean, Josu Tornay nahastu egin zen, eta David Boschek eskuratu zituen puntuak, Kataluniako xake bizkorreko txapelketa hain zuzen ere. Domekan, bosgarren partidaren erraz nagusitu zen arrasatearra. Seigarren partidaren pazientzia faltagatik hanka-sartze galanta egin zuen, eta galdu egin zuen partida hori. Zazpigarrena irabazi, zortzigarrena galdu eta bederatzigarrena berdindu egin zuen. 59. postuan amaitu du Josu Tornayk txapelketa.

## BESAIDE MENDI ELKARTEA

### Bihar, zapatua, Besaide Mendi Elkarteak beteranoen II. irteera egingo du

Besaide Mendi Elkarteak beteranoen II. irteera antolatuko du bihar. Joan den urtean Toloñora joan ziren, eta aurten Aralar aldera joko dute. Mendi irteera Lizarrustin hasi eta Igaratzatik pasatu eta gero San Miguelen amaituko da. Menditik bueltatzea egin ostean, Ventas de Mugiron bazkalduko dute. Irteera goizeko zazpitan izango da Garibaiko autobus geltokitik. Hain zuzen, irteera horrekin amaituko du Besaide Mendi Elkarteak aurtengo Mendi Astea.

## FOTOKIROLA



### 150 igerilari Arrasateko kiroldegian

Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako 150 igerilari egon ziren joan den aste bukaeran Arrasaten. Igerilariok euren ligetan ondoen sailkatutakoak ziren, eta aurten lehen aldiz izan da maila horretako neska-mutikoei lau probintzien arteko Joko Txapelketan parte hartu dutena. Era guztietako probak egin behar izan zituzten Musakolako igerilekuan batutako neska-mutikoei. Guztira hogeita hamar probatan ibiltzeko aukera izan zuten igerilariak.



TRIATLOIA

# Debagoieneko III. Triatloia korrituko da bihar, Urkulun hasita

Probak joan den urteko ibilbide bera izango du, eta 200 atleta inguru izango dira

XABIER URZELAI

Bihar, zapatua, 16:00etan hasiko da Debagoieneko III. Triatloia. Aurten ere Urkulun hasiko da proba, eta Arrasaten amaitu. Atletak 1.500 metro igeri, 40 kilometro bizikletan eta 10 kilometro korrika egin beharko dituzte; ibilbidea joan den urteko bera izango da.

Aurtengo proba ere Antxintxika Debagoiena triatloi taldeak antolatuko du, eta taldeko atleta asko, entrenatzen ibili beharrean, jo eta ke ibili dira proba antolatzen. Antolatzaileen iritziz, 200 atleta inguru izango dira biharko proban, horietako 30 ibarrekoak, eta punta-puntako triatletak egongo badira ere, munduko txapelkunak izan berri diren Virginia Berasategi eta Eneko Llanos ez dira proban egongo. Hala ere, proba ezin ikusgarriagoa izango da.



Joan den urtean Llanosek sekulako maila erakutsi zuen.

XABIER URZELAI

## JOAN DEN URTEKO IBILBIDE BERA

Joan den urtean korrika egin beharreko ibilbidea aldatu egin zuten, baina aurten ez da aldatarik egongo. Proba arratsaldeko lauretan hasiko da Urkulun. Triatletek 1.500 metro igeri egin eta gero, bizikleta hartu, eta Aretxabaletarako bidea hartuko dute. Hau da bizikletan egin beharreko ibilbidea: Urkulu, saihesbidea, Epele, Sara jatetxea, Arrasate, Aramaio, Azkoaga, Untzilla, Aretxabaleta eta Arrasate. Gero, bizikletak Laubide plazan utzi eta triatletek 10 kilometro egin

beharko dituzte korrika Arrasateko kaleetan. Helmuga, berriz, Laubide plazan egongo da.

## ERREPIDEA MOZTUTA

Probaren antolatzaileek Maalako biribilunearen eta Laubideko biribilaren arteko errepide zatia moztu egingo dute, eta autobusa hartu gura duenak Zerrajerako etxeetan izango du autobus geltokia. Horrela, atletek lasaiago egin ahal izango dute proba, eta helmuga dagoen lekuan ere arazo gutxiago egongo dira.

Probarako zenbakiak Gari bai etorbidean jaso beharko dira 12:00etatik 14:00etara bitartean. Oraindik izena eman ez duenak jakin dezala bihar bertan izena emateko aukera egongo dela, 25 euro ordainduta.

Azken atleta helmugaratzen denean hasiko dira sariak banatzen. Lehenengo hamar atletendako 300 eta 30 euro arteko sariak egongo dira, bai gizonezkoetan baita emakumezkoetan ere. Askorentako, baina, sari handiena proba amaitzea izango da.

# Domekan Euskadiko Txapelketako motokros proba Mojategin

Domekan motokrosa egongo da ikusgai Mojategiko zirkuituan. Entrenamendu saioak 15:00etan hasiko dira eta lasterketa, berriz, 16:00etan. Arrasateko denboraldiko laugarren proba izango da, eta seguruenik parte-har-

tzaile asko egongo dira, San Romanen (Araba) jokatu zen azken proban 31 lasterkari egon ziren-eta kategorian bakarrean.


## HAINBAT ZILINDRADA

Domekako proban hainbat zilindrada

dradatako motoak egongo dira, eta hiru kategoriatan banatuko dituzte. Lehenengo kategorian gazteek korrituko dute.

Nagusietan, berriz, kategorian bi egongo dira, baina aurten bi aldiko motoez gain lau aldiko motoak ere egongo direnez, hainbat zilindrada egongo dira: hain justu ere, lehenengo kategorian, bi aldiko motoek gehienez 250 zentimetro kubiko izango dituzte eta lau aldiko motoek, gehienez 500 zentimetro kubiko; bigarren kategorian, bi aldiko motoek 250 zentimetro kubikotik gora eta lau aldiko motoek 500 zentimetro kubikotik gora izango dituzte.

Lasterketa ikusteko nagusiek bost euro ordaindu beharko dituzte eta 14 urtetik behar-rakoak, berriz, hiru euroren truke sartu ahal izango dira zirkuitura.



ARTXIBOA

Mojategiko zirkuitua berritu egin dute, eta ibilbidea guztiz ezberdina da.

## GIMNASIA ERRITMIKOA

### Domekan Arrasateko sei gimnasta izango dira gazte mailako Euskadiko Txapelketan

Domekan gazte mailako Euskadiko Txapelketa jokatu da Iruenen, eta Arrasateko sei gimnasta izango dira txapelketan. Taldeko modalitatean, Miren Bragado, Maialen Balentziaga, Janire Bolinaga, Edurne Elkorro, Maria Etxebarria eta Idurre Garcia izango dira eta bakarka, berriz, A gazte mailan, Maria Etxebarriak eta Idurre Garcia hartuko dute parte eta B gazte mailan, Maialen Balentziaga lehiatuko da.

## Koadrila Arteko Pilota Txapelketa

A Taldea	jok.	punt.	B Taldea	jok.	punt.
Gaizka - Ugutz	5	10	Aroste - Gartzia	5	10
Jabo - Raul	5	9	Kepa - Jabi	5	9
Bode - Txain	5	9	Ibai - Agiriano	5	9
Zorion - Jesus	5	8	Eimon - Zarre	5	8
Nafa - Alzeste	5	7	Mikel - Ion	4	6
Jon - Mikel	4	5	Lur - Skritx	4	4
Manex - Ulli	4	4	Mendi - Ugartetxe	5	4
Jesus - Carlos	5	3	Boludo - Eotx	3	2

C Taldea	jok.	punt.	D Taldea	jok.	punt.
Saizar - Pon	5	9	Iñigo - Isturiz	3	6
Gorka - Asier	4	8	Mikel - Iker	3	5
Poke - Txaima	3	6	Etor - Haritz	2	4
Txopo - Fran	4	6	Kepa - Oxel	3	4
Kubano - Txakelu	4	5	Ion - Mikel	3	3
Imanol - Jon	3	4	Iñaki - Arkaitz	3	3
Aranbu - Aranburu	4	4	Txori - Mikela	1	2
Gari - Igortz	3	3			



## Partidu interesgarriak:

### Ekainak 7, zapatua.

Aranbu - Aranbu vs Saizar - Pon	10:00 Musakolan
Aranbu - Aranbu vs Gorka - Asier	10:30 Musakolan
Poke - Txaima vs Gorka - Asier	11:00 Musakolan
Poke - Txaima vs Saizar - Pon	11:30 Musakolan
Ibai - Agiriano vs Mikel - Ion	11:00 Iturripen
Ibai - Agiriano vs Kepa - Jabi	11:30 Iturripen
Bode - Txain vs Gaizka - Ugutz	12:00 Iturripen
Aroste - Gartzia vs Lur - Skritx	12:00 Iturripen
Jon - Mikel vs Gaizka - Ugutz	12:30 Iturripen
Bode - Txain vs Jabo - Raul	13:30 Iturripen
Aroste - Gartzia vs Boludo - Eotx	13:30 Iturripen
Kepa - Oxel vs Iñigo - Isturiz	10:00 Uarkapen
Etor - Haritz vs Iñigo - Isturiz	10:30 Uarkapen

## BERANDU BAINA SEGURU

### ORAINGO ASTE BUKAERAN BINA PARTIDU JOKATUKO DITUZTE

Hiru asteko atzerapenarekin, baina azkenean sartu dugu Koadrila Arteko Txapelketaren taula. Orain arte ez da posible izan, baina hemendik aurrera txapelketaren berri aste-oro izango duzue txoko honetan. Bikote gehienek dagoeneko bost partidu jokatuko dituzte, baina beste bikote asko bidean daude oraindik. Oraingo aste bukaeran ere jardunaldi bikoitza izango da, eta hori dela-eta ezinezko zaigu partidu guztien berri ematea. Hori dela-eta partidu interesgarrienak aukeratu ditugu, saikapenari begiratu-ta. Antolatzaileen partetik ohar bat D multzokoendako: oraindik bikote bakar batek ere ez ditu bost partidu jokatu, eta argi ibili beharko dute kanpoan geratu gura ez badute.



PILOTA

# Eibarri irabazi eta gero, Zugasti eta Lazkano Debarro Txapelketako finalean

Joaneko partiduan, Eibarren, 22-14 galdu eta gero, arrasatearrek partidu biribila eginda eskuratu zuten martitzenean finalerako txartela (22-10)

XABIER URZELAI

**Senior mailako pilotariak ezin hobeto amaituko dute denboraldia: Debarro Txapelketako finalean. Zugastik eta Lazkanok finalerdietako itzulerako partidua jokatu zuten martitzenean, eta egin beharrekoa gaitza bazen ere, arrasatearrek joaneko partiduan Eibarren eskuratutako emaitza txarrari buelta eman zioten.**

Partidu biribila izan zen martitzenekoa. Arrasateko pilotariak bazekiten helburua lortzea, finalera iristea, ez zela batere erraza izango. Partidua irabazteaz gain, Eibarrek ezin zituen 14 tanto baino gehiago egin, eta horrek gauza bat esan gura zuen: akats gutxi egin beharko zituztela.

Zugasti eta Lazkano bikain hasi ziren, lehenengo minutuan arrasatearrak 7-0 aurreratu ziren, eta bazirudien Mondragoeko pilotari bien jokatzeko modua ikusita, helburua betetzea posible izango zela. Eibartarrak, baina, esna-

tu egin ziren, eta tantoak egiten hasi. Eibarko aurrelariak ondo sakatzen zuen, eta Eibarren haren sakeak Lazkanori min handia egin bazion ere, Arrasatekoak sakeari peurria hartua ziola erakutsi zuen martitzenean. Askoz ere akats gutxiago egin zituen Mondragoeko atzelariak, eta ondo eutsi zion partiduari. Horretan ahalegindu ziren eibartarrak, pilota atzera botatzen, baina Lazkanok gustura geratzeko moduko partidua egin zuen.

Zeingeziagoka erabaki zena, baina, Arrasateko aurrelaria izan zen. Zugastik jokaldi asko moztu zituen, ahal zuen guztietan boleaz sartu zen, eta pilotari behar bezala eman zionean, eibartarrek ederto sufritu zuten: buruhauste ederrak sortu zizkion Zugastik Eibarko aurrelariari.

Partidua amaitu arte mondragoetarrek ez zuten behera egin, eta eibartarrek ez zuten erreakzionatzeko aukerarik izan. Arrasate finalera iristeko asmoarekin kantxaratu zen, baita lortu ere. Zorionak!



Arrasateko aurrelariak sasoi onean dagoela erakutsi zuen martitzenean, eta hainbat tanto ikusgarri egin zituen.

## Etxerat eta AT Celaya taldeek jokatu dute Zaldibarko finala

Partidu bi baino ez dira geratzen Zaldibarko Txapelketa amaitzeko: hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partidua eta finala. Bi partidu horiek bihar, zapatua, jokatu dira. 16:00etan izango da lehenengo norgehiagoka, eta Betrayar eta Saukelu Scream taldeak izango dira nor baino nor gehiago hirugarren postua eskuratzeko helburuarekin. 17:00etan,

berri, AT Celaya eta Etxerat taldeek finala jokatu dute. Etxerat taldeak badaki zer den Zaldibarko txapelketa izatea. Ez da Zaldibarko Txapelketako joko ikusgarriena egiten duen taldea, baina euri irabazteko ondo jokatu behar da. AT Celaya taldeak, berri, hainbat urtetan maila polita erakutsi eta gero, aurtengo finalean egotea merezi duen taldea dela

erakutsi du. Aurreko urteotan horixe falta izan zaio talde horri, txapelketa amaieran azken esprinta egitea, alegia.


Finalean izango diren bi talde horiek orain dela gutxi neurtu zituzten indarrak, hirugarren fasean, eta orduan Etxerat nagusitu zen (6-3). Partidu ikusgarria bezain parekatua izan zen, eta argi dago emaitza horrek ez duela gauza handirik aurreratzen.

Talde biek zelan jokatu duten ikusita, seguru gol askoko finala izango dela, baina baliteke talde biak erasotzeko baino gehiago, defendatzeko asmoz irtetea. Edozelan ere, norgehiagoka berdinketarekin amaitzen bada, luzapenean urrezko gola izango da, eta horrela ere ez bada partidua erabakitzen, penaltiak izango dira.

### BIDEAN GERATU DIRENAK

Txapelketako talde onenak finalera iritsi direnak dira, baina asko dira maila polita erakutsi eta bidean geratu diren taldeak. Besteak beste, finalerdietan kanporatuak izan diren Betrayar eta Saukelu Scream taldeak aipatuko ditugu. Horiekin batera, beste talde asko daude, baina finalean talde birendako lekua baino ez dago: Etxerat eta AT Celaya taldeendako.

### FOTOKIROLA



### Mendi Aste arrakastatsua

Astelehenetik egubakoitzera bitartean Besaide Mendi Elkar-teak antolatutako Mendi Astearen barruan hainbat diapositiba emanaldi egon dira Monterronen, eta guztiak ere arrakastatsua izan dira. Arrasatear asko hurreratu da Monterronera mendizale edo abenturazalek egindako argazkiez eta kontakizunez gozatzeko. Martitzenean, Jesus Mari Barrena *Ketxuma*-k eskaini zuen diapositiba emanaldia, eta Nanga Parbat mendira egindako espedizioa egon zen ikusgai. (X.U.)



ZALDIBARKO ANTOLAKUNTZA

AT Celaya eta Etxerat taldeek ondo ezagutzen dute elkar.



# Etxeko konponketak

## Elektrizitatea

 **Aranzabal** Koop. E.  
Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak  
Zerkaosteta 15  
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

## Iturgintza

### Aretxabaleta

Durana 16 behea  
(Aretxabaleta)  
Tel.: 943 79 17 53

## Leihoak



### ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termi-  
ko eta poliuretanozko  
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.  
Tel./ Faxe.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18



**RRASATE**

### Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak  
24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77

Gipuzkoa etor. 37 • Tel.: 943 79 65 93



Loramendi 7, 2-behea  
Tel.: 943 77 08 88

**Iturgintza - Bainuak  
Gasa - Berogailuak**



### ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT  
Poliuretanoa • Bitarikoak

**Ateak • Zoluak**

Kanpantorpea 2-behea • ARRASATE  
Tel./Faxe.: 943 79 11 35

## Margoak

### Apain

MARGO ETA APAINKETA  
Matiena 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

## Giltzak



• Sarrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta  
aterkien konponketa • Artazi, laban, eta abar-  
ren salmenta eta zorrozketak • Larruzko gau-  
zak • Pantografo bidezko grabaketa

**Eroski merkataritza etxea**  
Tel./Fax: 943 79 76 03



10.000 KOLORETAKO MENUA  
Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87

### Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea  
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

## Igeltserotza



**Izcue  
Irurzun**

Igeltserotza orokorra  
Etxeen berrikuntzak  
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## Eraikuntzak

### Berecibar

Santa Marina 34 • Tel.: 943 79 09 63



**ZUTARRI s.l.**  
Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.  
Tel: 943 79 67 78 Faxe: 943 77 10 09



**IKUSKIZUNA/** Kukai dantza taldeak eta Tanttaka antzerki taldeak emankizun berezia eskainiko dute

# Gerrako umeen bizipenak gogoan, dantza, musika eta antzerkia uztartuta

IKER BARANDIARAN

Fusilatuen aldeko ekitaldien barruan, bihar, zapatua, Kukai dantza taldeak eta Tanttaka antzerki taldeak 1937: gogoaren bidezidoretatik ikuskizuna eskainiko dute. Ikuskizun horren ostean, Debagoieneko fusilatuen senideek prestatuko dokumentala emango dute.

Aste bukaeran, 36ko gerran fusilatuen aldeko ekintza mordo egingo dituzte. Horien artean, bihar, zapatua, Kukai dantza taldeak eta Tanttaka antzerki taldeak ikuskizun berezia eskainiko dute Amaia Udal Antzokian, 20:00etan. Ikuskizunak 1937: gogoaren bidezidoretatik izena du, eta gerra garaian itsasontzian atzerrira jo zuten zazpi umeren bizipenak kontatzen dituzte.

## IKUSKIZUN BIZI-BIZIA

Tanttaka taldeko Mireia Gabilondok gidoia idatzi du, eta ikuskizunean pantaila erraldoian emango dituzten irudiak lortzeko dokumentazio lan handia egin du; Kukai dantza taldeak koreografia eta dantzak prestatu ditu; Jon Maiak zuzendu ditu dantzariak, eta azken horiek umeak interpretatuko dituzte; ikuskizuna Juan Mari Beltranen musikan oinarritu dute. Batzuetan Juan Mari Beltranen taldeak zuzenean jotzen du; Arrasateko kasuan, ostera, musika grabatuta egongo da.

Kontakizuna bonbardakete kin hasiko da; gero, umeak itsasontzira sartuko dituzte eta haien bizipenak oso modu sinboliko eta poetikoan kontatuko dizkigute: sentipenak, amodio istorioak, jolasak... Istorioa triste den arren, oso ikuskizun bizia da eta zentzu positiboan kontatu dute.



M. DIAZ DE RADA

Ziur biharko emankizuna ikusgarria izango dela. Euskal dantzak eta aspaldiko irudiak izango dira nagusi.

## Antzezleak eta dantzariak batera

Kukai dantza taldea berri samarra da. Ereintza dantza taldeko partaideek euskal dantza tradizionalari ukitu berria eman gura zioten eta, bide batez, euskal dantza ikusle gehiagori gerturatu. Horregatik sortu zuten Kukai.

Tanttaka antzerki taldeko Mireia Gabilondo ere antzerkia eta dantza uztartuko zituen ikuskizuna prestatzeko gogoz zegoen. Hala, talde biek bat egin zuten eta talde bakoitza bere esparruan lanean hasi zen.

Ikuskizun horren aurre-estreinaldia 2002ko azaroan egin zuten Oreretan. Ikusleen aurrean proba egin gura zuten, eta oso pozik geratu ziren.

Haren ostean, 2003ko urtarrilean Donostian egin zuten saioa. Maiatzean lanpetuta ibili dira, eta ekainean eta uztailen aste bukaerero hitzartu dituzte emankizunak. Dagoeneko Zornotzan, Agurainen, Durangon, Gernikan, Bergaran eta Hernanin izan dira, besteak beste. Oso harrera ona izan dutela esan dute.

## Iban Margusino izan da San Juanetako kartelaren egilea

I.B.

Iban Margusino gazte arrasatearra izan da 2003ko San Juanetako Kartel Lehiaketako irabazlea. Zazpi parte-hartzaile egon dira lehiaketan, eta Margusinok egindako lana aukeratu dute.

Joan den egunean, maiatzaren 29an, epaimahaiak 2003ko San Juanetako irudia izango dena aukeratu zuen. Aurkeztu ziren zazpi lanetatik Iban Margusinok egindako irudia izan zen irabazlea.

Aurtengo lehiaketan zazpi lan jaso dituzte: lau ordenagailuz

egin dituzte eta hiru eskuz. Iban Margusinok ordenagailuz egin du lana. Minimalista samarra da: ia kartel osoa more kolorekoa -kolorea degradatuz doa- da eta behean su gar txikia dauka.

**IAZ BAINO PARTE-HARTZAILE GUTXIAGO** 2002an 18 parte-hartzaile izan ziren; aurtun, berriz, zazpi izan dira parte hartu duten lagunak.

AEDko, Udaleko eta koadriletak ordezkariak osatutako epaimahaiak aukeratutako lana, Iban Margusinok egindakoa, izango da etxer etxe banatuko duten San Juanetako egitarauaren azala. Hortaz, azal horrek irudikatuko ditu San Juanak.



Eskuin aldeko kartela da aurtengo irabazlea.

## LABUR



## Arrasate Musikalek emanaldi mordo egingo ditu

Arrasate Musikaleko lagunak buru-belarri dabilta lanean, eta datozen egunotarako hainbat ekintza antolatu dituzte.

Domekan, ekainaren 8an, 1936ko fusilatuei egingo dieten omenaldian Arrasate Musikaleko Bandak hiru pieza eskainiko ditu. Laubide plazan izango da, 12:00etan.

Ekainaren 9an, astelehenan, Arrasate Musikaleko irakasleek kontzertu pedagogikoa eskainiko dute Amaia Udal Antzokian. Hainbat eskolako ikasleek hartuko dute parte. 15:00etan izango da. Egun berean biolako eta biolontxeloko ikasleek kontzertua eskainiko dute Musika Eskolan; baita fagoteko eta oboeko ikasleek ere. Azken hori 19:30ean izango da.

Datorren asterako Arrasate Musikalek iragarri dituen ekitaldiekin bukatzeko, ekainaren 10ean, martitzenean, fagoteko eta tronpetako ikasleek kontzertua eskainiko dute Musika Eskolan, 19:15ean.

## Jon Iturbek kontzertua emango du Jai Zale tabernan

Gaur, egubakoitza, Jon Iturbek musikariak kontzertua emango du Jai Zale tabernan, 22:00etan.

Jon Iturbek urretxuarra da, eta urte asko daramatza musikan. The Hot Dogs! talde esanguratsuen abeslari izan zen. Disko bi grabatu zituzten eta euren zuzenekoak oso *basta* tiak ziren. Oso rock-and-roll gogorra egiten zuten. Jonek taula gainean Iggy Popen itxura hartzen zuen.

The Hot Dogs! taldea bertan behera uztea erabaki zutenean, taldekideetako batzuek Dirty Jackets taldea sortu zuten. Jonek, ostera, bakarrik kantuak prestatu eta talde baten laguntzarekin (Radio Gangsters) *Sudden deaths* diskoa grabatu zuen. Orain, bakarka, rock garratzagoa eta lasaiagoa egiten du, eta dagoeneko eman ditu kontzertuak Madrilan eta Bilbon.



E, TXO!

GUREGAIK / GAZTETXEAREN INAUGURAZIOA

**GAZTETXEA ZABALDU BERRI, ETA EGITARAUUA GERTU**

Gaztetxe berria zabaldu bezain laster, datozen egunetarako egitaraua prestatu dute: gaur Spank<sup>®</sup> eta Los Chicos Boom taldeek kontzertua egingo dute; datorren zapatuan, ekainaren 14an, 70eko hamarkadako rock jaialdi handia egingo dute. Herriko Culture taldeak antolatuta du eta aurtengoa bigarrena izango da. Bestalde, San Juanetan ere egongo da gaztetxean zer egin eta zer ikusi, baina oraindik ez dute ezer zehaztu. Ekainaren 28an, oster, Castelloko Templario heavy taldeak kontzertua egingo du.

**EGUZKILARU EGUNA PRESTATZEKO DEIALDIA**

Txatxilipurdi Eguzkilaru eguna prestatzen hasi da. Jai horren antolaketan parte hartu gura duena Txatxilipurdira joan dadila izena ematera edo honako telefonora dei dezala: 943 77 17 39. Agurmerengatik galdetu.

**EGUZKILARU EGUNEKO BAZKARI HERRIKOIA**

Ekainaren 25ean, Eguzkilaru egunean, umeendako herri bazkaria antolatu dute, 14:30ean. Bazkarirako txartelak salgai jarriko dituzte, ekainaren 9tik 25era bitartean, Santa Marinako eta Okendoko ludoteketan. Bazkideek eta anai-arrebek sei euro ordaindu beharko dute eta gainerakoek, berriz, zazpi euro.

**EUSKAL HERRIA ZUZENEAN KONTZERTURA, LANERA**

AEDko Gazte Taldeak Arrosako Euskal Herria Zuzenean kontzerturako lan txandak antolatu gura ditu. Azken urteotan bai Txatxilipurdik baita AEDk ere boluntarioak bidali ditu. EHZ jaialdia uztailearen 4an, 5ean eta 6an egingo dute.

# Bihar, zapatua, gaztetxe berria jendaurrean aurkeztuko dute

IKER BARANDIARAN

Herriko gazteek dagoeneko gertu daukate Uarkapeko gaztetxea. Bihar, zapatua, zabalduko dute. Dantzariak, txalapartariak, bideo proiektzioa eta kontzertua izango dira inaugurazio ekitaldian.

Herriko gazte batzarrak Aste Santuaren ostean hartu zituen Uarkapeko gaztetxeko giltzak; gero, gazteek lokala margotu eta egokitu egin dute, eta dagoeneko gertu dago. Bihar aurkezpen ekitaldia egingo dute, 22:00etan.

**GAZTETXEEN GAINBEGIRATUA IRUDITAN** Herrian egon diren gaztetxeen irudiak batu dituzte eta bideo proiektzioa egingo dute. Horren

*Gaztetxeen historia gainbegiratu, eta gazte batzarraren asmoak azalduko dituzte*

aurretik, baina, dantzariak eta txalapartariak izango dira. Gazte batzarreko partaideren batek orain arte Arrasaten gaztetxeetan egindako lana laburbilduko du, eta, horrez gain, egungo gazte batzarrak dituen asmoak azalduko ditu. Horren ostean, herriko musika talde bik kontzertua



IKER BARANDIARAN

Ziurrenik gazteek gaztetxe berrian ekitaldi ugari egingo dituzte.

eskainiko dute: hardcore-metala egiten duen Spank<sup>®</sup> eta punk-rocka egiten duen Los Chicos Boom

taldea (orain dela gutxi arte Fase Terminal izena zuen talde horrek) izango dira taula gainean.

# Mila Garmendiak margolan erakusketa jarri du gaur, egubakoitza, Harresi aretoan

I.B.

Gaur, egubakoitza, Mila Garmendiak margolan erakusketa jarri du Harresi aretoan. Hainbat sari jaso ditu lehiaketetan, eta lehenengo aldiz jarri du erakusketa propioa Arrasaten. Erakusketa hilabetez egongo da ikusgai.

Mila Garmendia arrasatearrak lehenengo bakarkako erakusketa jarri du Harresi aretoan. Gaur zabaldu du erakusketa eta hilabetez egongo da ikusgai.

Mila Garmendik eskulanak izan ditu gustuko betidanik; hala ere, orain dela 8-9 urte margotzen hastea erabaki zuen. Santa Teresan Kutxak antolatzen zuen ikastaroetan izena eman eta Bingen de Pedro irakaslearekin hasi zen margotzen. Hiru urte egin zituen han, Santa Teresako zentroa itxi zuten arte.

Bi urtean margotu barik egon zen, eta horren ondoren Bergaran beste ikastaro bat hasi zuen. Azkeneko bi urteotan Juanjo Altunarekin margotzen dihardu.

**ERAKUSKETAK, ARRASATETIK KANPO**

Donostian erakusketa bi izan ditu: bata, Donostiako paisaiekin; eta bestea, Gipuzkoako kostaldeko paisaiekin. Azkenaldian, oster, barrualdeko paisaiak margotzen dabil. Eta erretratuak egitea ere du gustuko.

Batez ere olioak margotzen ditu, inoiz akrilikoak ere egin dituen arren. Sarritan, paisaia bat ikusi eta gero, etxera bueltatzen denean gogoratzen duena margotzen du. Orain dela urte bi lehiaketetan parte hartzen hasi zen, eta urtean lau bat lehiaketatan hartzen du parte. Hala, Olaberrin lehenengo saria jaso zuen eta Mutrikun, accessita.



**HIES BERRI**

Tel.: 943 79 26 99

**Aretz**

Taberna

Markole 5  
943 79 14 67  
ARETXABALETA

**S. CARRASCAL S.L.**

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikan erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a  
Tel/Faxa: 943 79 01 82

**Gambrinus**  
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42  
Tel.: 943 79 53 32



## BEHEKODENDATIK

## Unai Lazkano

## LAZKANO MUSIKA DENDAKUE

XABIER URZELAI

Lazkano musika dendie juen dan astien zabaldu euen, Zarugalden, eta Lazkano anaietako batekin egin dogu berba, Unaikin, *Mou*, lagunendako. Dendan lan egitten dauena beste anaie da, Josu, baiñe kanpuen dabil. Kontue da musika kontuetaarako oin ez dauela zertan kanpora juen, Lazkanon dauketzue dana.

Txikittan ze gure zeuen izen?

Talde bateko kantante.

Eta oin, lanbide hori hartuko zeuke?

Ez, eszenarixoa azpizien hobeto pasetan dot.

Ze esango zeuskio Bushei?

Gauza asko, baiñe kabroi hutsa dala esaten hasiko nitzake.

Eta Aznarrei?

No comment.

Drogak legalizauko zeuke?

Bai.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?

*En el nombre del padre* / Ez dot irakurten / Asko, baiñe beti gustau izen jat Bad Religion.

Nora juengo zitzake gustora?

Ointxe bertan... sofara.

Uharte batera ze hiru gauza eruengo zeuke?

Lagun on bat edo neskie (euki ezker), eta hazi batzuk, han fruktak eta holakuek landaketako.

Etxeko lan gorrotagarrixena?

Ohie egittie.

Juergazalie zara? Juergarako leku bat?

Baietz esan biherko. Mondraguen bertan.

Puntuau Mondragueko girue.

Zazpikue emungo dutzegu.

Ze dauko ona udaberriek?

Alaixago egoten garela eta... neskak arropa gutxiagokin ibiltten diela.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?

Pazientzia.

Tranpan ibilteketan nor-



X.U.

*"Herritarrek ez daukie kanpora juen biherrik; hamen daukogu biherrezko dana"*

baittekin, zeñekin?

Estatuakin.

Jefiari ze esango zeuskio gustora?

Soldatie igoteko.

Denpora librien ze egitten dozu?

Lo, musikie entzun eta lagunekin kartetan egin.

Janari eta edari gustokue-nak?

Jateko, okelie; edateko... kalimotxue! (Barriek).

Ze albiste irakurriko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Independentzia lortu dogule.

Lekuz aldatu dozue dendie; gustora?

Bai, oso gustora. Denda askoz

*"Denda barrixe askoz be haundixague da, baitte eskaparatie be; gaiñera, jente gehixago ibiltten da"*

be haundixague da, eta eskaparatie be haundixe dauko. Kale honetan askoz be jente gehixago ibiltten da. Gaiñera, dendie geurie da, eta hori be oso inportantie da.

Suertie dauketzue: musikuek ezin die musikatik bizi, eta zuek musikariek egin barik bai.

Egixe da, ba! Bueno, anañ nagusixe txistularixe izendakue da, eta beste anaie be musika teknikarixe da; orduen...

Hortan, musikarako joerie euki dozue etxien.

Bai, aittona tronpetistie izen da, orkesta baten jo euen, eta anaia nagusixek be hortxe ibilli die. Bai, etxien betidanik euki dogu musikarako joerie.

## NIREBIDAIAHURA/ Agurtzane Ugalde

Nepal eta Tibet / 2002ko udazkenean

Tibeteko errepideetan geratu ginen joan den astean, Agurtzane eta beste lagun birekin batera. Agurtzaneren esanetan, bidaian zorte handia izan zuten: "900 kilometroan gutako inori ez zitzaion gurpila zulatu". Lo egiteko ere ez zuten arazo handirik izan: "Behin, bizikletan gindoazela, euria hasi zen, eta aterpetxe moduko baten sartu ginen. Kontua da errepideak kontzen zebiltzala, eta langileendako aterpetxeak zeudela bide bazterretan. Langileek lo egiteko txoko bat utzi ziguten, eta handik aurrera, horrelako aterpetxeak aprobetxatu genituen lo egiteko. Hango jendearekin oso harreman ona izan genuen, eta normalean lo egiteagatik ez genuen ezer ordaintzen. Beste barik, txoko bat uzten ziguten. Gainera, guk generaman mapan aterpetxe horiek seinalezatuta zeuden, eta horietara joaten ginen zuzenezuean".

Tibeten egonda, mendiak hurrerotik ikustea ia derrigorrezkoa zen. Bizikleta aparkatuta utzi eta *trekking*-a egin zuten Annapurna inguruan. Agurtzaneren esanetan, ez zen *trekking* gogorra izan; gainera, turista mordoa zebilen han: "Ia ezinezkoa zen benetako mendizaleak eta turistak bereiztea". Hala ere, hango bizilagunen esanetan, irailaren 11 ezkerotako turismoak behera egin du.

Gustura bueltatuko litzateke Agurtzane Nepal aldera, baina oraingoz beste asmo batzuk ditu. Ahal duen guztietan Maroko aldera joaten da Agurtzane, normalean bizikletarekin, eta dagoeneko 13 aldiz egon da han. Uda partean Marokora joango da, Atlasetan bizikletan ibiltzera. Horrez gain, baina, Pirinioetara eta Finisterre aldera ere askotan joaten da bizikletan. Horrez gainera, Hego Amerikan ere ibili izan da. Lurralde asko ezagutu ditu Agurtzanek bizikleta gainean.

XABIER URZELAI



Benetan ere leku ikusgarria da Tibet.



*"900 kilometroan ez zitzaigun gurpilik zulatu"*

*"Ia ezinezkoa zen benetako mendizaleak eta turistak bereiztea"*

Herrialde berriak  
bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?  
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.





ZAHARREN ETXETIK

# SUDCek antolatutako herri bazkarian 1.021 erretiratuk hartu zuten parte

IKER BARANDIARAN

**S**UDC elkarteak joan den zapatuan, urtero moduan, herriko erretiratuentzako herri bazkaria antolatu zuen Musakola kiroldegian. 1.021 erretiratuk hartu zuten parte eta oso giro ona izan zuten.

SUDC elkarteak 30 urtetik gora daramatza, urtero-urtero, herriko erretiratuendako herri bazkaria antolatzen. Aurten ere antolatu du, eta 1.070 erretiratuk eman zuten izena. Egunean bertan, baina, 1.021 erretiratu batu ziren Musakolako kiroldegian. Ezagun da adin horretako jendeak osasun arazoak izaten dituela, eta horren ondorioz, azken orduan batzuek kale egin zuten. Bazkaltzera joan zirenetik, 580 emakumeak ziren eta 441 gizonak.

## GIZON ETA EMAKUME NAGUSIENAK

12:30ean meza izan zuten San Juan Bautista elizan. Mezaren ostean Musakolara jo zuten erretiratuek. Horretarako, Abaroatik Musakolara herri autobusa doan jarri zuten. Bazkaria 14:00etan zegoen iragarrita, baina 12:00etarako kiroldegiko inguruetan erretiratu mordo zegoen.

Auzo-Lagunek prestatu zuen bazkaria, eta jende mordoak lan egin zuen milatik gora laguni jaten emateko: SUDCeko 50 bat lagun, Auzo-Laguneko beste horrenbeste langile eta lagun-



Aurten ere SUDCek antolatutako bazkarian erretiratuek Musakolako kiroldegia lepo bete zuten.

tzaile ugari.

Honako menua izan zuten: entremesak, arrain-zopa, indioilar izterrak, tarta, izozkia, kafea, kopak, zigarropuruak, ardoa, freskagarriak eta xanpaina.

Erretiratuez gain, herriko erretiratuen elkarteetako ordezkariak, Xabier Zubizarreta alkatuek eta Juan Ramon Arkauz eta Amaia Larrañaga zinegotziek ere bazkaldu zuten kiroldegian.

Bazkalostean, kiroldegira bazkaltzera joan ziren gizon eta emakume nagusienak omendu zituzten: gizon nagusia Rafael Ortiz de Landaluze izan zen. 88 urte ditu; emakume nagusia, ostera, Brigida Monge izan zen. Brigidak 96 urte ditu. Nola Brigida hala Rafael ere zutitu eta opariak hartzera joan ziren poz-ozik. Aurten go danborradako jeneralak, Jon Madinabeitiak, eta SUDCeko banderariak, Jone Barrenak, eman zizkieten opariak. Brigidari lore-sorta eta opariak eman zizkieten eta Rafaeli, berriz, txapela eta opariak. Txikitxu-Arrostaitz taldeko dantzari bik aureskua dantzatu zieten omendu bie.

SUDC elkarteak gainerako erretiratuei txapel bana opari egin zien: gizoni berdea eta emakumeei gris kolorekoa.

Omenaldia egin eta opariak banatu ostean, SUDCeko arduradunek ustekabe atsegina eman zioten Arrasateko Rafa Fernández erretiratuari. Rafa Fernandezek urtero erretiratuen bazkarian animatzaile lanak egiten ditu, eta SUDCek eskertu egin gura zion egindako lan guztia. Plaka bat eman zioten, Portaloia irudiarekin eta esker-oneko esaldi batekin. Rafa hunkitu egin zen.

Horren ostean Arrasateko Gau Alai taldearekin dantzaldia hasi zen, eta 18:30ak arte ez zen Musakolako kiroldegian atsedenik izan. Mahaien artean utzitako lekua ez zen halako dantzari mordoarendako leku nahikoa, baina, edozelan ere, moldatu ziren, eta oso gustura ibili ziren.



Herriko erretiratu asko eta asko urteko bazkaria noiz heldu zain egoten dira.

## LABUR

### San Juanetan 80 urtetik gorakoei omenaldia

Urtero moduan, Udalak 80 urtetik gorako aiton-amonei omenaldia egingo die San Juanetan, ekainaren 24an. Parte hartu gura dutenek NA eraman beharko dute udaletxera ekainaren 17a aurretik.

### SUDCek antolatutako zozketako opariak jasotzeko zain daude

Joan den zapatuan SUDCek Musakolako kiroldegian antolatutako erretiratuen bazkarian zozketa egin zuen.

Bazkari txartel bakoitzak zenbaki bat dauka eta hainbatek sariak dituzte. Horiek eskuratzeko edo informatzeko, bazkari txartela eskuratutako erretiratuen elkartera jo beharko dute.

### Uribarri elkarteak Olitera eta Tafallara txangoa antolatu du

Ekainaren 18an Uribarriko erretiratuen elkarteak Olitera eta Tafallara txangoa antolatu du. Dagoeneko izena emateko aukera dago eta zozketa ekainaren 11n egingo dute, 17:00etan. Besteak beste, Oliterako gaztelua bisitatuko dute. Autobusa 08:00etan irtengo da, eta interesatuek 20 euro ordaindu beharko dituzte.

### Abaroa elkarteak Islara txangoa antolatu du

Ekainaren 18an Abaroa elkarteak Islara txangoa antolatu du. Hamarretakoa Oriñonen egingo dute, eta gero Noja bisitatuko dute. Nojatik Islara joango dira, bazkaltzera. Islatik Arrasaterako bidean, Castro bisitatuko dute. Ekainaren 11n izena eman beharko dute, eta bakoitzak 15 euro ordaindu beharko ditu.

## Amaiur taberna

- Oilasko erreak egiten ditugu, enkarguz, etxera eramateko
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Platertxoak
- Eguneko menuak

Etxeko berezitasuna: txorizoa infernu erara.

Ignacio Zuloaga 6. Arrasate. Tel.: 943 77 19 28

## Monte taberna

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

## UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel: 943 79 76 58  
ARRASATE

## Aretz Taberna

Markole 5  
943 79 14 67  
ARETXABALETA






ARRASATE  
**Urko Oteiza**  
Ekainaren 1ean, 1 urte.  
Urte askotarako! Etxekoak.



ARRASATE  
**Mireia Rodriguez**  
Ekainaren 6an, 13 urte.  
Zorionak, *ceballotal!* Lagunen partetik.



ARRASATE  
**J.A. Murumendaraz**  
Ekainaren 12an, 63 urte.  
Angel eta konpainia.



ARRASATE  
**Miriam Martínez**  
Ekainaren 11n, 21 urte.  
Zorionak! Jon, Aran, Aritz eta etxeokak.



ARRASATE  
**Jon Egidazu**  
Ekainaren 9an, 5 urte.  
Zorionak, Saguntoraino! Arrasatetik eta Gasteiztik.



ARAMAIO  
**Inhar Amenabar**  
Ekainaren 3an, 15 urte.  
Zorionak! Etxekoak eta koadrilakoak.



ARRASATE  
**Mainer Zuazubiskar**  
Ekainaren 4an, 23 urte.  
Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE  
**Agustín Merchán**  
Ekainaren 1ean, urtebetetzea. Zorionak! Bikotekidearen partetik.



ARRASATE  
**Karmelo Zubillaga 'Tame'**  
Ekainaren 6an, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE  
**Luisa Burgui**  
Ekainaren 6an, urtebetetzea. Zorionak! Familiako-en partetik.



ARRASATE  
**Izaskun Eraña**  
Ekainaren 3an, 16 urte.  
Zorionak! Aita eta Josu.



ESKORIATZA  
**Leire Sierra**  
Ekainaren 4an, 3 urte.  
Zorionak! Etxekoen partetik.

**Adi!** Argazkiak emateko lekua:  
**Arrasate:**  
ARRASATE PRESS  
Otalora Lizentziaduna 31.

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaiozu ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.  
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



EZETZASMATU



BIZI IZAN JUAT, LIBURUA, JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

Zein kale da argazkian ikusten duzuen hori?  
Arrastoa: Otalora Lizentziaduna kaletik oso-oso gertu dago.



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**  
ARRASATE PRESSERA!

**Orlando tomate frijitua**  
410 g

**0,48€** 80 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**SAIOA ZUGASTI**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Saioa!  
Galderaren erantzun zuzena:  
**Biteri Eskolak.**

ARRASATEKOHISTORIA

Parrokoa, alkatea eta Arrasateko pilotalekua

JON ANDER RAMOS

Arrasaten betidanik egon da pilotarekiko zaletasuna. Horren adibide da Tolosako Artxibo Probintzialeko akta bat. Haren arabera, 1805ean Arrasaten egundoko pilotalekua eraiki gura zuten. Baina oztopo handiak izan zituen asmo hark. Izan ere, Gipuzkoako korrejidoreak kontrako txostena aurkeztu zuten. Horren ondorioz, Gaztelako Kontseilu Nagusiak, pilotalekua eraikitzeke baimena eman baino lehen, egoeraren berri jakin gura izan zuen eta Arrasateko parrokoari eta alkateari zenbait zalantza galdetu zizkien. Hona hemen egindako galderetako batzuk: ea egia zen astegunetan umeek eta gramatikariak jolasten zutela bakarrik; pertsona nagusiek jolastuz gero, ea bizirik irauteko medioak bazituzten edo ea artisauak ziren, eta ea pilotan eginez gero euren lana alboratzen zuten; ea nekazariak jaiegunetan jolasten zuten edo ez eta ea bolotarako edo dantzarako zaletasun handiagoa zuten.


Parrokoak erantzun zion astegunetan Pizkundetik urrirra

*1805ean Arrasaten egundoko pilotalekua eraiki gura zuten, baina oztopoak izan zituen*

*Korrejidoreak galdetu zuen ea ez zatekeen hobeto izango bolotan eta dantzan ibiltzea*

arte bizirik irauteko medioak zituztenek jolasten zutela astegunetan, bai sekularrek baita elizgizonek ere. Eta jaiegunetan ez zutela jolasten, artisauak jolas zezaten; izan ere, azken haiek debekatuta zuten astegunetan jolastea.

Alkateak, berriz, erantzun zion gramatikariari maisuek debekatu egiten zirela lanegunetan jolastea.



ARTXIBOA

Arrasaten betidanik egon da pilotarekiko zaletasun handia; 1939ko argazki hori da horren adibide.

Horrez gainera, korrejidoreak galdetu zuen ea pilotan baino ez zatekeen hobeto izango bolotan eta dantzan ibiltzea. Parrokoak erantzun zion ezetz, bolotan Santamasetan bakarrik

egiten zutela eta dantzarako zaletasuna beherantz zihoala, ezkondutakoek gutxitan hartzen zutelako parte.

Bukatzeko, pilotan egiten zutenak egiten ez zutenak baino

ahulagoak ziren ere galdetu zuen korrejidoreak. Eta alkateak eta parrokoak, biek, erantzun zioten kontrakoa zela: pilotak gorputz-konstituzioa hobetzen laguntzen zuela.



# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko ekainaren 6a / 67. zenbakia


KOORDINATZAILEA: Ubañe Madera • Otalora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

## Ez irabazi arren, Manex gustura egindako lanarekin

UBANE MADERA

Aurtengoan ez da izan iazkoan bezain besteko zorionik, eta Manex Agirre bosgarren geratu da Arabako Bertsolari Txapelketan. Zigor Enbeitak eraman du aurten txapela.

Ez du irabazi, baina gustura geratu da Manex Agirre Gasteizko Printzipal antzokian egindako lanarekin. Ohiko agurraren ostean hasi zen txapelketaren lehengo fasea: ofizioka zortziko nagusi, ofizioka zortziko txiki eta hamarreko txikian hiruna bertso bakoitzean, gero puntuari erantzun bana eta gaia emanda eta neurri librean bina bertso. Manexek kontatu digunez, gorabeheratsua izan zen bere saioa, baina ofiziotan ondo ibili zen, "erritmoa hartuta eta giroan sartuta". Hala, nahiz eta bigarren fasera sailkatzerik lortu ez, egindako lanarekin gustura geratu da. Hain justu, Zigor Enbeitak eta Oihane Perea pasatu ziren bigarren fasera, eta bien artean Enbeitak nagusitu zen.




Manex Agirre Zigor Enbeitarekin berbetan Gasteizko Printzipal antzokian.

### DATORREN URTEAN INDARTSU

Edozelan ere, dagoeneko datorren urteari begira dabil Manex Agirre. Izan ere, sei urteren ostean Otamendik txapela galdu izana

nak itxaropena esnarazi du gainerako bertsolarien artean. Hala, gehiago entrenatu eta indarrez parte hartzeko asmoa du datorren urtean Manex Agirrek.



## Eskola Arteko Bertsolari Txapelketako finalean

Aramaioko gazteak ekin eta ekin badabilta bertsotan, gaztetxoak ez dira atzean geratzen. Izan ere, barikuan, hilaren 30ean, Arabako Eskola Arteko VIII. bertsolari txapelketa jokatu zen Aramaion.

Guztira 17 ikaslek jardun zuten Aramaion zenbait proba egiten, gaiak emanda eta puntuak emanda, esaterako. Gai-jartzaile lanak Lierni Altunak bete zituen; eta mutikoen lana epaitzen Manex

Agirre eta Oihane Perea bertsolariak ibili ziren. Txomin Elortza, Iraia Beitia eta Olatz Ezpeleta sailkatu dira finalerako.

Hain justu, bihar, zapatua, jokatuko dute finala, Gasteizko Armentia Ikastolan. Zortzi ikasleren artean egongo da lehia, Gorbialdeko, Agurain-Gasteizko, Araia-Kanpezuko, Gasteizko eta Aiarako bertso-eskoletatik finalerako sailkatu direnen artean.



### Joko tradizionalak gorde guran

Ibarreko 150 ume inguru batu ziren Aramaion joan den barikuan, hilaren 30ean. Jolasean ibiltzea zen helburua. Baina ez edozein jolasetan, antzinako jolasetan baizik. Sokasaltoan, bolotan, kaniketetan, eskuz hariekin, hanka koskoxean, eta abar. Egun osoa eman zuten elkar ezagutzen. Bazkaldu ere batera bazkaldu zuten. Eta eguna bukatzeko herri kirolak egin zituzten. Hori guztiari Goieskolak antolatuta. /U.M.



### Jon Agirreren alde Aramaion

Manifestazioa eta ekitaldia egin zuten zapatuan ibarreko zenbait lagunek Jon Agirre aramaiarra gogora ekartzeko. Hala, manifestazioaren ondoren, pilotalekuko ekitaldia bertsolariekin hasi zen. Gero, ibarreko presoek bizi duten egoeraren gainean eta Jon Agirreren egoeraren gainean egin zuten berba. Ekitaldia amaitzeko bertso afaria egin zuten.

/KEPA ERRASTI

## LABUR

### Araba Euskaraz-era joateko autobusa

Etzi, domeka, Araba Euskaraz dela eta, Udalak jakinarazi digu Aramaitik autobusa irtengo dela hara joateko. Hiru euroko prezioa ipini dute, eta 16 urtetik beherakoendako debalde. Edozelan ere, abisatzen dute autobusa betetzen ez bada bertan behera geratuko dela.

Oionen izango da Arabako ikastolen aldeko jaiak. Hala, izango diren ekitaldi ugariaren artean, bigarren arean (San Justo), 11:00etan, aurten Arabako Bertsolari Txapelketako finalean parte hartu duten bertsolariak (Asier Otamendik izan ezik) saioa egingo dute, eta tartean, jakina, Manex Agirre izango da. Gai-jartzaile Naroa Sasieta ibiliko da.



## TELEFONOJAKINGARRIAK

**OSASUNA / LARRIALDIK**

Osasun etxea (txandak) . . . . .	945 44 53 40
Botika . . . . .	945 44 50 03
Udaletxea . . . . .	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate) . . . . .	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio) . . . . .	945 45 52 52
San Martin Eskola . . . . .	945 44 50 04
Taxia eta autobusak . . . . .	945 44 50 33
Udal Kiroldegia . . . . .	945 44 53 35
Postetxea . . . . .	945 44 50 83
Zubiako Eskualdea . . . . .	945 43 01 67
Suhiltzailak (Zubillaga) . . . . .	943 78 28 00

## AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

**OHARRA:** izartxoaren orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

## OHARRAK

### ARETO FUTBOLA

Gutxiatik, baina zapatuko partidua galdu egin zuen Bañerako gazte mailako taldeak. 4-3 izan zen emaitza. Bihar, zapatua, Aramaion jokatuko dute; partidua 11:30en izango da eta, eta Urgatziren kontra jokatuko du etxeko taldeak.

Horrez gainera, Bañera elkartearekin segituz, esan beharra dago denboraldia amaitzean dagoela-eta, ohi-turari segituz, bihar, zapatua, bazkaria egingo dutela. Aurten Dukiena jatetxean elkartuko dira Bañerako kirolariak.

### PILOTA PARTIDUAK

Bareako pilotariak fin-fin segitzen dute barikueroko partiduekin. Honako emaitzak izan zituzten azkeneko partiduetan: Serrato-Rioja 13 / Raul-Ruiz de Azua 22; Ekain-Balanategi 22 / Senar-Axpe 9; Xabi-Ander 22 / Asier-Aitor 11 eta Manex-Markel 16 / Iker-Aidor 22. Oraingo barikuan ere jokatuko dute, eta haien ostean ETB Kantxako Lau Erdiko Txapelketaren barruan hiru partidu jokatu dituzte, 21:15ean hasita.


## INFORMATIKA

### Aramaioren berri izateko bide berria: 'www.aramaio.org' da helbidea

Aramaioko Udalak webgunea estreinatu du. Joan den astean aurkeztu zuen jendaurrean. Helbidea [www.aramaio.org](http://www.aramaio.org) da, eta, jakina, edozein sar daiteke eta edozeinek egin dezake harpidetza. Hala, harpidedun eginez gero, Aramaio Udalaren inguruan sortutako berriak nor bere ordenarean jasoko ditu. Hain justu ere, albiste berriak sortu ahal izango dira informazio hori berri egingo dute-eta.

Euskarazko eta gaztelaniazko bertsiokak ditu webguneak eta, aipatutako informazioaz gainera, herriaren gaineko informazioa ere badakar, turismoarekin lotutakoa, baita herrian egingo diren ekimenen berri ematen duena ere.

Goiena Komunikazio Zerbitzuek eta Code & Syntax enpresek ekoiztu dute Aramaio webgunea eta Nora González aramaiarra arduratu da edukiak lantzeaz.



## LABUR


### Espainiako gerra dela-eta, omenaldia eta liburua

Azken egunotan puri-purian dabilta Espainiako gerrarekin lotutako kontuak. Hain zuzen ere, etzi, domeka, Arrasaten omenaldia egingo diete gerran desagertu zirenei eta fusilatu zituztenei. Tartean aramaiarren senideak ere badira. Horrez gainera, oraingo astean, besteak beste, gai bera lantzen duen liburua aurkeztu dute Arrasaten. Aramaiarren ere azaltzen dira liburuan.

### Gasa moztuko dute astelehenean Ibarren

Aramaioko Udalak jakinarazi digunez, datorren astelehenean, hilaren 9an, gasa moztuko dute Ibarrenko etxebizitzak guztietan, 22:00etatik 08:00etara.

Kontua da gasaren kanalizazioaren ikuskatze froga egitera datozela eta gau osoa eman behar dutela hori egiten.



### Dagoeneko erabil daiteke KZGunea

Joan den astean azkeneko ukituak eman eta gero, kultura etxeko KZGunea erabiltzeko moduan dago. Hori bai, orain, ordenagailuan ibiltzen eta Interneten ibiltzen dakienak bakarrik erabil dezake. Hala, bien bitartean udaletxean KZGuneako kide izan gura dutenen izenak hartzen dabilta. Gero, datorren astetik aurrera taldeak osatu dituzte eta hortik aurrera eskolak ematen hasiko dira, Interneten ibiltzen ez dakitenentzako, hain zuzen ere.

Zortzi ordenagailu ditu KZGuneak. Esan bezala, prestakuntzarako zein nabigatzeko erabiliko dira. Gelaren ordutegia sortzen diren taldeen arabera zehaztuko dute.



### Jaietako egitaraua eta kartela

Oraindik hilabete pasatxo falta da herriko jaietarako, San Martinetarako. Baina Jai batzordea lan eta lan ibili da eta dagoeneko aurkeztu du egitaraua. Udaletxean dute orain, eta jaiak baino apur bat lehenago helaraziko diete herritarrei.

Bestalde, eta San Martinekin lotuta, oraingo astean jakinaraziko du Udalak zeinek irabazi duen aurtengo Kartel Lehiaketa. Emandako informazioaren arabera, bi lagunek aurkeztu zituzten lanak, eta litekeena da biei sariak ematea. Edozein ere, albiste hau idaztean ez geneukan informazio zehatzagorik; hortaz, datorren astean erakutsiko dizuegu aurtengo jaiak iragarriko dituen kartela.




## ERRETRATUZAHARRA

Barrena  
etxeko  
meatzea

**A**rrasaten antzina bazeuden meatzeak. Oraingo asteko argazki zaharra da horren adibide. Gure berriemaileen arabera, 20ko hamarkadako da. Eta Barrena etxeko meatzea da ikusten duguna. Sasoi hartan beste meatze bat ere bazegoen Arrasaten: Galarrakoa; dezentte handiagoa zen hura.

Ikusten duzuen moduan, meatzea bedeinkatu zuteneko unea jasotzen du argazkiak. Parrokia On Jose Joakin Arin da; 1936an fusilatu zuten. Emakumea Emilia Berezibar da, *Errekalde*, eta haiekin dagoen umetxoa iloba Felix da. Elizmutila, berriz, Sabin Arrieta da, eskumako emakumea Gabriela Berezibar *Errekalde* eta mutikoa iloba Paco izan daitekeela uste du gure berriemailetako batek.

Hala, kontatu diguten moduan, zinga edo zinka eta zilarra (gutxi) ateratzen zuten Barrena meatzetik. Meatzea zabaldu eta berehala auzoko mutiko bat makinein arduradun hasi zen lanean, Pio Maiztegi, Ugalde Azpikoa. Eta geroago Satur Arana



sartu zen, Zerrajerako langile ohia. Bi horiez gainera, jende gutxik egiten zuen lan meatze hartan.

Meatzearen jabeak bizkaitarrak ziren, eta Arrasaten ateratzen zutena Bilbora eramaten zuten zakuetan, han aztertzeko eta sailkatzeko. Meatzea zabaldu eta, gutxi gorabehera, hamar

urtera itxi egin zuten, agortu zenean.

Bitxikeria moduan esan beharra dago Amadeo izeneko Arrasateko seme batek aurkitu zuela meatze hura. Itxura denez, zaletasuna zeukan meatze bila ibiltzeko, eta horrela aurkitu zuen. Baina esan beharra dago, era berean, meatze hura lehena-

gotik erabili izana zuela norbaitek; izan ere, zenbait tunel eta bide eginak zituen.

**Argazkia:** J. Bera

**Informazioa:** J. Bera eta Martin Zubizarreta

**Urtea:** 20ko hamarkada

## NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Kioskoaren  
bueltan bizi  
izandakoak

**J**oan den astean argazkiei ez zegokien testua sartu genuten tarte honetan.

Portaloiarene gaineko testua jarri genuen, udaletxeko eta Herriko Plazako argazkiekin. Hemen zuzenketa: *Bizi izan juat* liburuan Jesus Trincadok kontatzen digunez, Arrasateko plaza oso leku berezia zen. Gaztetan plazan elkartzen zen lagunekin, kaniketari edo beste ehunka jolasetan ibiltzeko.



≈ 1950 Geroago, kioskoaren bueltan izan zituzten herriko neskatilekin lehenengo hartu-emanak.



2003 Gaztetxoendako jolastoki izaten segitzen du plazak; neskekin dantzan egitera, berriz,... Gazte-ek ez dute apenas dantzarik egiten.

# BITTORI

## ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua  
Especialitateak:  
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

## UGARTE

Industria  
hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6  
Pab.  
Tel.: 943 -71 21 41  
Faxa: 943 - 71 21 40

# ad Ibabe

## IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.  
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



**Arrasate Irratia**

*Freskoena.*

**24 ORDU ETENGABE EMITITZEN**



**parte hartu irratian**

Tel.: 943 71 17 31 e-posta: [irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com)

**FM107.7**  **ARRASATE  
IRRATIA**



# GRUPO RKUZ

1950-2003



Arkauz zure etxea da.



Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51  
ARETXABAETA



Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82  
ARRASATE



Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55  
ARETXABAETA



Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97  
ARETXABAETA

